

TOKI-ZUZENBIDEAREN EUSKAL BEHATOKIA

(2025eko iraila)

ARAUGINTZAKO PROIEKTUAK

Diputatuen Kongresua:

- **Lege Organikoaren proiektua, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoa (5/1985, ekainaren 19koa) aldatzen duenarena.**

Ganberako Mahaiak, 2025eko uztailaren 24an egindako bileran, Konstituzio Batzordeari agindu zion irizpena eman zezala, Erregelamenduaren 109. artikuluari jarraikiz.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-63-1.PDF#page=1

- **Lege-proiektua, zenbait lege-xedapen aldatzen dituen, zerbitzu digitaletan gobernantza demokratikoa hobetzeko eta komunikabideak antolatzeke.**

Ganberako Mahaiak, 2025eko abuztuaren 29an egindako bileran, Ekonomia, Merkataritza eta Transformazio Digitaleko Batzordeari agindu zion onets zezala lege-proiektu hori, legegintzako eskumen osoz eta Erregelamenduaren 148. artikuluari jarraikiz.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-66-1.PDF#page=1

- **Lege-proiektua, Desgaitasunen bat dutenen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) eta abenduaren 14ko 39/2006 Legea (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran daudenak zaintzeari buruzkoa) aldatzen dituen, desgaitasunen bat dutenek inklusiorako, autonomiarako eta irisgarritasun unibertsalerako dauzkaten eskubideak hedatu eta indartzeko, bat etorrita Espainiako Konstituzioaren 49. artikuluaekin.**

Ganberako Mahaiak, 2025eko uztailaren 24an egindako bileran, Gizarte Eskubideak eta Kontsumoa Babesteko Batzordeari agindu zion onar zezala lege-proiektu hori, legegintzako eskumen osoz eta Erregelamenduaren 148. artikuluari jarraikiz.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-64-1.PDF#page=1

BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

- **Ustelkeriaren aurka Borrokatzeko Estatu Plana.** Ministroen Kontseiluak, 2025eko abuztuaren 26ko bileran, Ustelkeriaren aurka Borrokatzeko Estatu Plana onetsi zuen. Planak administrazio zuzen eta gardenago bateranzko ibilbide-orria ezartzen du, prebentzio- eta zehapen-neurri berriak sartuta, bat etorrita nazioarteko organismoen gomendioekin eta gizarte zibilaren ekarpenekin.

<https://www.lamoncloa.gob.es/presidente/actividades/Documents/2025/090725-plan-estatal-lucha-contracorrupcion.pdf>

- **Ebazpena, 2025eko uztailaren 18koa, Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Estatu Idazkaritzarena, Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunean toki-erakundeei 2025erako gordetako eskumenak (zabalduek edo berriak) garatzeko transferentziei buruzkoa. (2025eko uztailaren 29ko BOE)**

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2025-15733>

- **Ebazpena, 2025eko ekainaren 24koa, Autonomia Erkidegoen eta Tokiko Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiarena, toki-erakundeek 2023ko ahalegin fiskalari buruz eman behar duten informazioa eta informazio hori Ekonomiako eta Ogasuneko Ordezkaritzetan egiaztatzeko modua garatzen dituen.** (2025eko ekainaren 28ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/30/pdfs/BOE-A-2025-13229.pdf>

- **PJC/681/2025 Agindua, uztailaren 1ekoa, Ministroen Kontseiluaren 2025eko uztailaren 1eko erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, sektore publikoko langileen ordainsariak % 0,5 igotzea onesten da, ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege-dekretuaren 6.2 artikuluan halaxe jasotzen baita (4/2024 Errege Lege-dekretua, ekainaren 26koa, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituen eta zerga-, energia- eta gizarte-arloan premiazko neurriak hartzen dituen).** (2025eko uztailaren 2ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/02/pdfs/BOE-A-2025-13410.pdf>

- **Jarraibidea, 2025eko uztailaren 3koa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, Erregistro Zibilaren Legearen (uztailaren 21eko 20/2011 Legearen) 44.4 artikulua aplikatzeari buruzkoa eta Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2015eko urriaren 9ko Jarraibidea (osasun-zentroek jaiotzen berri komunikazio elektronikoen bidez emateari buruzkoa) aldatzen duena.** (2025eko uztailaren 5eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/05/pdfs/BOE-A-2025-13786.pdf>

- Ebazpena, 2025eko uztailaren 8koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenean txertatutako 1. eranskina eguneratzen duena; ebazpen horren bidez, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketetan eta eratorrietan aplikatzekoa den

finantza-zuhurtasuneko printzipioa zehazten da. (2025eko uztailaren 10eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/10/pdfs/BOE-A-2025-14208.pdf>

- TED/739/2025 Agindua, ekainaren 19koa, administrazio hidraulikoaren entitate laguntzaileen araubide juridikoa garatzen duena, jabari publiko hidraulikoko urak aprobatxatu eta babesteko arloan. (2025eko uztailaren 13ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/14/pdfs/BOE-A-2025-14455.pdf>

- 633/2025 Errege Dekretua, uztailaren 15ekoa, Enpleguari Modu Aktiboan Laguntzeko Estatu Estrategia 2025-2028 onesten duena. (2025eko uztailaren 17ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/16/pdfs/BOE-A-2025-14693.pdf>

- TED/776/2025 Agindua, uztailaren 8koa, Desertifikazioaren aurka Borrokatzeko Estatu Estrategia eguneratzen duena, Mendien Legean (azaroaren 21eko 43/2003 Legean) jasotzen diren baldintzetan, eta Estrategia 2025-2027 aldian ezartzeko plana onesten duena. (2025eko uztailaren 22ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/22/pdfs/BOE-A-2025-15140.pdf>

- Ebazpena, 2025eko abuztuaren 7koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenean txertatutako 1. eranskina eguneratzen duena; ebazpen horren bidez, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketetan eta eratorrietan aplikatzekoa den

finantza-zuhurtasuneko printzipioa zehazten da. (2025eko abuztuaren 9ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/09/pdfs/BOE-A-2025-16494.pdf>

Artikuluak / Doktrina-azterlanak

- El reconocimiento de cláusulas generales de necesidad a favor del Alcalde como expresión de la autonomía municipal ante situaciones extraordinarias, Guillermo Villar Crespo (Acento Local blegean argitaratuta, 2025eko ekainaren 25ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/el-reconocimiento-de-clausulas-generales-de-necesidad-a-favor-del-alcalde-como-expresion-de-la-autonomia-municipal-ante-situaciones-extraordinarias/>

- Compatibilidad del cobro por el ayuntamiento de una tasa y una tarifa en un mercado de abastos. Sentencia del Tribunal Supremo 275/2025, Miryam Quintanilla Navarro (Acento Local blegean argitaratuta, 2025eko uztailaren 4an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/compatibilidad-del-cobro-por-el-ayuntamiento-de-una-tasa-y-una-tarifa-en-un-mercado-de-abastos-sentencia-del-tribunal-supremo-275-2025/>

- Comentario a la STC 134/2025, de 10 de junio: se declara inconstitucional la restricción prevista en el párrafo 2 del art. 197.1.a) de la LOREG que afectaba al concejal municipal no adscrito cuando promovía una moción de censura, Sergi Monteserin Heredia (Acento Local blegean argitaratuta, 2025eko uztailaren 9an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/comentario-a-la-stc-134-2025-de-10-de-junio-se-declara-inconstitucional-la-restriccion-prevista-en-el-parrafo-2-del-art-197-1-a-de-la-loreg-que-afectaba-al-concejal-municipal-no-adscrito-cuando-pr/>

- El blindaje jurisprudencial de los puestos de libre designación, Fernando Luque Regueiro (Acento Local blegean argitaratuta, 2025eko uztailaren 16an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/el-blindaje-jurisprudencial-de-los-puestos-de-libre-designacion/>

- El derecho a no declarar contra uno mismo puede resultar de aplicación durante la tramitación de informaciones reservadas. Sentencia del Tribunal Supremo 704/2025, Noelia Betetos Agrelo (Acento Local blegean argitaratuta, 2025eko uztailaren 18an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/el-derecho-a-no-declarar-contra-uno-mismo-puede-resultado-de-aplicacion-durante-la-tramitacion-de-informaciones-reservadas-sentencia-del-tribunal-supremo-704-2025/>

- ***La mejora de la calidad democrática local: por un estatuto del electo local***, Tomàs Font I Llovet (Acento Local blogean argitaratuta, 2025eko uztailaren 23an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/la-mejora-de-la-calidad-democratica-local-por-un-estatuto-del-electo-local/>

- ***La nulidad de disposiciones generales locales no implica la de los actos administrativos derivados de aquellas***, Carlos M.^a Rodríguez Sánchez (Acento Local blogean argitaratuta, 2025eko uztailaren 30ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/la-nulidad-de-disposiciones-generales-locales-no-implica-la-de-los-actos-administrativos-derivados-de-aquellas/>

- ***Cómputo del día final del plazo de caducidad en los procedimientos. Sentencia del Tribunal Supremo 597/2025***, Miryam Quintanilla Navarro (Acento Local blogean argitaratuta, 2025eko abuztuaren 1ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/computo-del-dia-final-del-plazo-de-caducidad-en-los-procedimientos-sentencia-del-tribunal-supremo-597-2025/>

- ***Procesos selectivos sin papeles. El caso de Madrid***, Óscar Cortés Abad (Acento Local blogean argitaratuta, 2025eko abuztuaren 6an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/procesos-selectivos-sin-papeles-el-caso-de-madrid/>

- ***Y ahora, Segovia: urge simplificar el establecimiento de las zonas de bajas emisiones***, Javier Calvo García (Acento Local blogean argitaratuta, 2025eko abuztuaren 20an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/y-ahora-segovia-urge-simplificar-el-establecimiento-de-las-zonas-de-bajas-emisiones/>

- ***¿Por qué nunca fracasan —ni tienen éxito— las políticas de reto demográfico? Una visión “local” desde el control externo independiente***, Simón Rego Vilar (Acento Local blogean argitaratuta, 2025eko abuztuaren 13an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/por-que-nunca-fracasan-ni-tienen-exito-las-politicas-de-reto-demografico-una-vision-local-desde-el-control-externo-independiente/>

- ***El reconocimiento de legitimación activa a los municipios para impugnar el planeamiento urbanístico de otros colindantes: condiciones y alcance. Sentencia del Tribunal Supremo 707/2025, Noelia Betetos Agrelo (Acento Local blogean argitaratuta, 2025eko abuztuaren 22an)***

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/el-reconocimiento-de-legitimacion-activa-a-los-municipios-para-impugnar-el-planeamiento-urbanistico-de-otros-colindantes-condiciones-y-alcance-sentencia-del-tribunal-supremo-707-2025/>

Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz

- ***Estrategia social en las compras públicas. Un camino hacia la sostenibilidad, Bernabé Palacín Sáenz (Acento Local blogean argitaratuta, 2025eko uztailaren 2an)***

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/estrategia-social-en-las-compras-publicas-un-camino-hacia-la-sostenibilidad/>

- ***Las características medioambientales como criterio de adjudicación en la contratación pública, Fernando Luque Regueiro (Acento Local blogean argitaratuta, 2025eko abuztuaren 27an)***

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/las-caracteristicas-medioambientales-como-criterio-de-adjudicacion-en-la-contratacion-publica/>

- ***La licitación electrónica en España: Seguridad en el Cobro, Enrique Castellanos Rodrigo (ObCP blogean argitaratuta, 2025eko uztailaren 28an)***

<https://www.obcp.es/opiniones/la-licitacion-electronica-en-espana-seguridad-en-el-cobro>

- ***Lex et Ratio: La exigencia de motivación reforzada en la exclusión de ofertas en presunción de anormalidad a la luz de la resolución TACRC 639/2025, María Gómez Ruiz (ObCP blogean argitaratuta, 2025eko uztailaren 21ean)***

<https://www.obcp.es/opiniones/lex-et-ratio-la-exigencia-de-motivacion-reforzada-en-la-exclusion-de-ofertas-en>

- ***Los contratos administrativos de emergencia en la administración local, Jordi Turón Serra (ObCP blogean argitaratuta, 2025eko uztailaren 14an)***

<https://www.obcp.es/opiniones/los-contratos-administrativos-de-emergencia-en-la-administracion-local>

- *Una propuesta de reforma del sistema de contratación pública de España para prevenir la corrupción*, José Manuel Martínez Fernández (ObCP blogean argitaratuta, 2025eko uztailaren 9an)

<https://www.obcp.es/opiniones/una-propuesta-de-reforma-del-sistema-de-contratacion-publica-de-espana-para-prevenir-la>

- *¿Hacia dónde ir para transformar digitalmente los procedimientos de contratación pública?*, Isaac Martín Delgado (ObCP blogean argitaratuta, 2025eko uztailaren 2an)

<https://www.obcp.es/opiniones/hacia-donde-ir-para-transformar-digitalmente-los-procedimientos-de-contratacion-publica>

EAEko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Organoa

104/2025 Ebazpena, 2025eko ekainaren 25ekoa. Aurkaratzeko moduko egintza: botere adjudikatzaileak adjudikazio-prozeduran atzera egitea aurkaratzeko moduko egintza da. Adjudikazio-prozeduran atzera egitea: doktrina orokorra; atzera egitearen oinarrian dagoen lege-urraketa konponezina (kontratuaren xedea ez zehaztea eta norgehiagoka urratzea) ez da justifikatu; eskaintza bakarra aurkeztea, berez, ez da urraketa bat; ez da sartzeko oztoporik edo gardentasun-printzipioari egindako urraketarik ikusi.

https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeoarc/eu/contenidos/resolucion_oarc/104_2025/eu_def/index.shtml

106/2025 Ebazpena, 2025eko ekainaren 25ekoa. Kontratuaren prezioa: kontratuak prezio bateratuak jasotzen ditu, maximoak; prezio bateratuen guztizko zenbatekoa garrantzitsua da prezioa ebaluatzeko ondorioetarako, adjudikazio-printzipio gisa; akats konponezina; egokia da proposamena baztertzea; bazterketa ez da neurritz kanpoko. Aurkaratutako adjudikaziodunak errekurtsogilearen bazterketa eskatzea onartezina da; kongruentzia errekurtsoarekin; “reformatio in peius” debekua; ez dago babesgabetasunik (errekurtsogilearen proposamenaren akatsak alegatu daitezke, adjudikazioa haren aldekoa bada).

https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeoarc/eu/contenidos/resolucion_oarc/106_2025/eu_def/index.shtml

109/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 3koa. Langileak subrogatzea: botere adjudikatzailerak aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa jaso behar du pleguetan. Adjudikaziodunak lokal bat eduki behar du udalerrian; “lurralde-errotzeari” buruzko klausula bat emateko betekizunak; betekizuna diskriminaziorik ezarri gabe aplikatzen da; interes orokorreko arrazoiengatik justifikatuta dago, eta egokia da.

https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeoarc/eu/contenidos/resolucion_oarc/109_2025/eu_def/index.shtml

110/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 3koa. Prezioa eta aurrekontua: aurrekontua eta balio balioetsia kalkulatzeko, langileen kostua eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa ez dira kontuan hartu; merkatura egokitzeko legezko agindua urratu da. Administrazio-klausula partikularren agiriaren eta preskripzio teknikoen agiriaren artean kontraesanak daude; espezialitate-printzipioa. Kontratuaren iraupena: ez da justifikatu zerbitzu-kontratu baten iraupenak oro har aplikatzekoa den muga gainditzea. Prezioak berrikustea: inbertsioak berreskuratzeko aldiaren kalkulua ez da justifikatu; ez dago Kontratazio Publikoko Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorraren nahitaezko txostena (kontratua 5.000.000 eurotik gorakoa da); eskatu aurreko izapidea ez da ageri.

https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeoarc/eu/contenidos/resolucion_oarc/110_2025/eu_def/index.shtml

111/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 3koa. adjudikazio-irizpidea ebaluazioaren mende dago, formula bat aplikatuz; doktrina orokorra; aseguru-kontratu baten eskaintzak zenbait gastu ez mugatzea proposatzen du, “0” batekin puntuatuta; aurkaratutako puntuazioa ez dator bat pleguetan ezarritako formularekin; eskaintzarik merkeena ezin da “0” batekin puntuatu; pleguetan ez da aukera hori debekatzen; eskaintza-ereduak ez du adjudikazio-irizpidea azaltzen, eta irizpidea aldatzea garrantzitsua da, bakar-bakarrik, aldaketa horrek lizitatzailerak proposatutakoa ezagutzea galarazten badu edo eskaintza baloratzeko behar den informazioa alde batera uzten badu; aurkaratutako proposamena zehaztuta dago, nahiz eta eurotan adierazi ez, eta, kontratua gauzatzeko fasean, betetzen den egiaztatu ahalko da; ez da sinesgaitza edo irreala; eskaintzak ondorio kaltegarria izan dezake formularen funtzionamenduan, baina ezin zaio lizitatzailerari egotzi; lizitatzailerari ezin zaio errua leporatu, eskaintzaren puntuazioa optimizatzeagatik; botere adjudikatzailerak formularen ondorioa aurreikusi behar du, gero ezin delako berrinterpretatu; eskaintza bat ezin da “0” batekin baloratu, gauzatze-fasean betetzea eskatu ahal bada.

https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeoarc/eu/contenidos/resolucion_oarc/111_2025/eu_def/index.shtml

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusia

1032/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 10ekoa. Izapide-egintza kualifikatua: Eskaintza aurkezteko epea ezesteko erabakiak berori formulatzea galarazten du. Eskaintzak aurkezteko epea luzatzea egokia da, epea bukatu aurretik eskaintza aurkeztea erabat galarazten duen zerbait gertatzen denean: hornidura elektrikoa erortzea eta Sektore Publikoko Kontratazio Plataformaren webgunera sartu ezin izatea. Egitate nabaria. Legezko aurrekontuak aztertzea, epea luzatzea erabakitzeko. Epe-luzapena eta kontratazio-prozedura ezesteko erabakia deuseztatzea, jarduketak ezin daitezkeelako atzera eraman behin eskaintza ekonomikoen berri eduki eta gero.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200666-2025%20\(res%201032\)%2010-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200666-2025%20(res%201032)%2010-07-2025.pdf)

1012/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 10ekoa. Lizitaziora aurkeztutako hiru enpresaren artean kolusiozko jarduerak egin dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 150.1 artikulua arabera. Murtziako Eskualdeko Lehia Babesteko Zerbitzuaren txostena. Hiru enpresa horien artean kolusiozko jokabideak egin eta ados jarri direla iradokitzen duten zantzuaren analisia.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200773-2025%20mu%2038-2025%20\(res%201012\)%2010-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200773-2025%20mu%2038-2025%20(res%201012)%2010-07-2025.pdf)

1051/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 10ekoa. Auzitegiaren doktrina, eskaintza eta berorren irismena zuzentzeko aukerari buruzkoa. Eskaintzaren argibideak, zuzenketak eta osagarriak nahiz haien ondorioak eta efektuak bereiztea. Kasu honetan, administrazio-klausula partikularren agiriaren arabera derrigorrez eta nahitaez aurkeztu behar ziren bi dokumentu ez dira aurkeztu, eta, beraz, eskaintza baztertu egin behar da, dudarik gabe. Kontrakoa onartuz gero, eskaintzaren osagarri bat aurkeztea onartuko litzateke, eta hori, doktrinaren arabera, ezin da onartu.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200774-2025%20clm%2066-2025%20\(res%201051\)%2010-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200774-2025%20clm%2066-2025%20(res%201051)%2010-07-2025.pdf)

1074/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 17koa. Bazterketari eta adjudikazioari errekurtsoa jarri zaie. Bazterketa jakinarazi egin zen, baina errekurtso-oinik gabe; hortaz, ezin da balioetsi irmoa denik. Errekurtsoa onargarria da, eta baztertutako lizitatzailleak legitimazioa dauka. Lizitatzaillea baztertu dute, okerreiz beste sorta bat adierazi duelako Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman,

hau da, eskaintzan materialki adierazten zenaz bestelako sorta bat. Auzitegiaren ustez, kontratazio-organoak gehiegikeriaz jokatu zuen lizitatzaillea baztertzean, akatsa agerikoa zelako. Errekurtsoa onetsi da, eta jarduketak atzera eraman dira.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200837-2025%20clm%2069-2025%20\(res%201074\)%2017-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200837-2025%20clm%2069-2025%20(res%201074)%2017-07-2025.pdf)

1085/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 17koa. Lizitatzaillea baztertu dute, pleguan eskatzen zen ISO ziurtagiria aurkezteko orduan egindako forma-akatsa epean ez zuzentzeagatik. Kontratazio-organoak ez zion epe argirik eman, epemuga zehatz bat baizik (eguna eta ordua), eta hori ez dator bat Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 141.2 artikularekin.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200609-2025%20\(res%201085\)%2017-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200609-2025%20(res%201085)%2017-07-2025.pdf)

1082/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 17koa. Lehenengo sailkatuari eman diote adjudikazioa, preskripzio teknikoak betetzen ez zituela balioetsi arren, eta hurrengo eskaintzaren adjudikatzaille gisa proposatutakoari (errekurtsogileari) dokumentazioa eskatu diote. Adjudikazioa ez dago arrazoituta. Lehenengo txosten teknikoa ordezkatzan duen bigarren txostenean, preskripzio teknikoen agiria betetzeari buruzko balorazioa zuzendu da, baina zuzenketa ez da ez igorri, ez argitaratu, adjudikazioa eman eta errekurtsoa jarri arte. Arrazoiketa falta horrek babesgabe utzi du errekurtsogilea.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200928-2025%20\(res%201082\)%2017-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200928-2025%20(res%201082)%2017-07-2025.pdf)

1076/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 17koa. Enpresa errekurtsogilearen eskaintza baztertu da, B1 gutun-azalak B2 gutun-azalari buruzko informazioa zeukalako. Kontratazio-organoa lasaitu egin da, baztertzea neurriz kanpokoia izan dela onartu baitu. Errekurtsoa onetsi da, baina ez egintza atzera eramatea erabakiz; hala, lizitazio-espedientearen ezdeus deklaratu da, B1 gutun-azala dagoeneko ezin delako balio-judizioekin baloratu, gainerako lizitatzaileren eskaintza ekonomikoa eta baloratu beharreko gainerako elementuak irizpide objektiboen bidez baloratu direlako jada.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200846-2025%20ib%2050-2025%20\(res%201076\)%2017-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200846-2025%20ib%2050-2025%20(res%201076)%2017-07-2025.pdf)

1075/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 17koa. Enpresa errekurtsogilea oinarritzko aurrekontua gainditzeagatik baztertu zuten, eta baztertu izana zalantzan jarri du. Pleguak nahasgarriak ziren, eta ez zuten argi eta garbi esaten proposamena urterik urte aurkeztu behar zenik. Formalismorik ezaren printzipioa.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200844-2025%20\(res%201075\)%2017-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200844-2025%20(res%201075)%2017-07-2025.pdf)

1102/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 24koa. Errekurtsogilea laugarren tokian sailkatu zuten, baina haren errekurtsua legitimatu dute. Alegatu duenez, lau adjudikazio-irizpide ez dira ondo baloratu, nahitaezko eranskinak elektronikoki sinatu ez zituelako. Administrazio-klausula partikularren agiriaren arabera, eranskinak sinatuta egon behar zuten, baina ez zuten zehazten sinadura elektronikoak izan behar zutenik. Eskuz egindako sinadurak, nahiz eta “zirriborro” sinpleak izan, ezin daitezke baliogabetzat jo, sinadura elektronikoa berariaz eskatu ez bada. Jarduketak atzera eraman dira, eskaintza baloratzeko. Prozedura ez da deuseztatu, irizpideak objektiboak direlako eta ez dutelako balio-judiziorik behar.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200966-2025%20val%20197-2025%20\(res%201102\)%2024-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200966-2025%20val%20197-2025%20(res%201102)%2024-07-2025.pdf)

1125/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 24koa. Eskaintza baxuegia izateagatik eta kontratazio-organoaren arabera nahikoa justifikatuta ez egoteagatik baztertu dute. Errekurtsogileak alegatu duenez, justifikazio-eskaera orokorra izan zen, eta ez zituen alderdi zehatzak aipatu; halaber, justifikazio tekniko luze bat aurkeztu zuen, kostuak aztertzeko bi metodo erabiltzen zituen, eta aurretiko eskarmentua, sinergiak, berrikuntza eta arau-betetzea argudiatu zituen. Auzitegiak errekurtsua onetsi du. Justifikazioa nahikoa eta ondo arrazoitua dela balioetsi du. Auzitegiaren ustez, kontratazio-organoak ez zituen lizitatzaillearen balioespenak objektiboki alderatu, eta bazterketa ez zuen ondo justifikatu.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200885-2025%20val%20184-2025%20\(res%201125\)%2024-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200885-2025%20val%20184-2025%20(res%201125)%2024-07-2025.pdf)

1137/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 31koa. Berdintasun Plana ez da onetsi eta argitaratu, langileen ordezkariak aldi baterako ezintasunean zeudelako. Adjudikaziodunak kontratatzeke debekua zeukan, eskaintza egin zuenean plana ez zegoelako ez onetsita, ez inskribatuta.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200606%20y%200614-2025%20\(res%201137\)%2031-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200606%20y%200614-2025%20(res%201137)%2031-07-2025.pdf)

1140/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 31koa. Errekurtsogilea legitimatu da; ez zuen eskaintza aurkeztu, pleguetako klausulek ez ziotelako utzi lizitazio-prozedurara berdintasun-baldintzetan aurkezten: Preskripzio teknikoak xeheegiak dira, eredu zehatz baten arabera, nahikoa justifikatu gabe. Balio-judizioen mendeko adjudikazio-irizpideak zehaztugabeak dira. Errekurtsoa partzialki baietsi da. Preskripzio teknikoen agiriaren 9.1 klausula, edukiera espezifikodun 13 edukiontzi eskatzen dituen, baliogabetu egin da, ez dagoelako arrazoituta eta eredu zehatz baten berdin-berdina delako. Gainerako alegazioak (preskripzio teknikoei eta adjudikazio-irizpideei buruzkoak) ezetsi egin dira, lehia askea bermatzen delako eta irizpideak nahikoa zehaztuta daudelako.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200941-2025%20ast%2049-2025%20\(res%201140\)%2031-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200941-2025%20ast%2049-2025%20(res%201140)%2031-07-2025.pdf)

1154/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 31koa. Langileen prestakuntza espezifikoa buruzko adjudikazio-irizpidea aurkaratu da, hobekuntza bat dela alegatuz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 145.7 artikularen arabera. Irizpidearen betekizunak ez daude ondo zehaztuta. Ez da zehazten prestakuntza-orduen gehieneko muga. Baliteke objektibotasun-, berdintasun- eta gardentasun-printzipioak urratu izana. Adjudikazio-irizpideak gehiegizko pisua dauka. Balioetsi egin da. Aurkaratutako irizpidea hobekuntza bat da, pleguetan eskatzen ez den prestazio gehigarri bat delako. Hobekuntzek betekizun zehatz batzuk bete behar dituzte: mugatuta, kontratuaren xedera lotuta eta ondo haztatuta egon behar dute. Eskaintako prestakuntza gehigarriak ez ditu betekizunak betetzen; bereziki, gehieneko muga zehaztu gabe dagoelako eta adjudikazioan daukan pisua arrazoitu ez delako.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200629-2025%20ib%2031-2025%20\(res%201154\)%2031-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200629-2025%20ib%2031-2025%20(res%201154)%2031-07-2025.pdf)

1156/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 31koa. Eskaintzaren adjudikaziodunaren justifikaziorik ezak anormaltasun-presuntzioa dauka. Kontratazio-organoak ez du justifikazioa ondo baloratu. Kontratazio-organoak amore eman du. Errekurtsok adjudikazio-akordio bati eragiten dionez, egokia da egiaztatzea amore ematean ordenamendu juridikoa ageriki urratu ez dela. Kontratazio-organoaren jarrera arrazoizkoa eta egokia da, errekurtsogilearenarekin bat datorrena, eta adjudikaziodunak ez du hutsaldu. Egiaztatu ahal izan den moduan, eskaintza anormala ez zen ondo justifikatu, bideragarritasuna gero hutsaldutako alderdietan oinarritu baitzen, zeinak elementu objektiboetan oinarritu gabeko alegazio hutsetara mugatzen baitziren. Kontratazio-organoak ez zuen onarpena arrazoitu. Jarduketak atzera eraman dira, eskaintza baztertu egin da, eta beste sailkapen bat egin da.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200752-2025%20\(res%201156\)%2031-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200752-2025%20(res%201156)%2031-07-2025.pdf)

1157/2025 Ebazpena, 2025eko uztailaren 31koa. Adjudikazio-irizpideak zalantzan jarri dira, merkataritza-etxe batek eskainitako produktuari bakarrik aplikatu ahal zaizkiola balioetsita. Memorian, adjudikazio-irizpideak ez daude nahikoa arrazoituta.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200757-2025%20\(res%201157\)%2031-07-2025.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202025/recurso%200757-2025%20(res%201157)%2031-07-2025.pdf)

Estatuko Kontratazio Publikoko Aholku Batzordea

54/24 txostena, 2025eko uztailaren 3koa. Gaia: Pertsona fisiko batek eratutako sozietate bati kontratatze debekuak eragin dio, pertsona fisiko horri kontratatze debekua ezarri zitzaionetik. Batzordearen ustez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71.3 artikulua ez du berariaz erregulatzen kontratatze beste debeku bat, hasiera batean debekatutako pertsonari jarraitutasuna ematen dioten edo haren ondoriozkoak diren beste enpresa batzuei debekuak noiz eragingo dien adierazten baizik.

<https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2025/informo202454afectaciondeunapcaunasociedadconstituidaporpersonafisicaalquepreviamentesel eimpusopc.pdf>

7/2025 txostena, 2025eko uztailaren 3koa. Gaia: 3/2022 Errege Lege-dekretuan jasotzen den ezohiko prezio-berrikuspenera aplikatzea kontratu-aldaketei, aldaketa horiek merkatuko prezioekin aitortu ondoren onartu direnean. Batzordeak ondorioztatu duenez, obra-kontratu batean ezohiko prezio-berrikuspenera aplikatzea onartu bada, 3/2022 Errege Lege-dekretuaren babespean, ez da egokitzen kontratu-aldaketa batean sartutako obrei ezohiko prezio-berrikuspeneraren formula aplikatzea, aldaketa aitortza baino beranduago onartu bada, obren prezioa une horretako merkatu-irizpideen arabera finkatu baita, aitortza ekarri zuen ezohiko aldaketaren ondoren.

<https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2025/informo202507aplicacionrevisionexcepcionalpreciosrdl322amodificadosaprobadoscosterioridadas ureconocimientoconpreciodemercado.pdf>

4/2025 txostena, 2025eko uztailaren 17koa. Gaia: Zerbitzuen kontratuan organismo kontratatzailearen lanpostu-zerrendan hutsik dauden postuetako ezaugarri tekniko eta profesionalak dauzkaten giza baliabideen atxikipena sartzea. Batzordearen ustez, sektore publikoko entitate batek, zerbitzuen kontratu bat lizitatzean, bere lanpostu-zerrendan hutsik dauden lanpostuen ezaugarri tekniko eta profesional berberak dauzkaten giza baliabideak atxikitzea eska diezaiokie enpresa adjudikaziodunari,



baldin eta xedean enplegatu publikoei gordetako ahal publikoak sartzen ez badira; hortaz, zehatz-mehatz zehaztu beharko da zer prestazio eman beharko dituzten.

<https://www.hacienda.gob.es/DGPatrimonio/Junta%20Consultiva/informes/informes2025/Informe202504ContratodeserviciosconrecursoshumanosconcaracteristicastecnicasyprofesionalesvacantesenlaRPT.pdf>

GOMENDIOA, Estatuko Kontratazio Publikoko Aholku Batzordearena, 2025eko uztailaren 17koa, Batasunekoak ez diren enpresek lizitazio-prozeduretan parte hartzeari eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (9/2017, azaroaren 8koa) 68. artikulua aplikatzeari buruzkoa.

<https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2025/recomendacionjccpeinterpretacionarticulo68lcsp.pdf>

Toki-erakundeekiko Finantzaketa Koordinaziorako Bulego Birtuala

Tokiko sektore publikoa osatzen duten entitateak. 2025eko ekainaren 30eko egoera. Toki-erakundeekiko Finantzaketa Koordinaziorako Bulego Birtualak «*Tokiko sektore publikoak 2025eko ekainaren 30ean zuen egoerari buruzko txostena*» argitaratu du, tokiko sektore publikoa osatzen duten entitateek egun horretan zuten egoera azaltzeko.

<https://www.hacienda.gob.es/CDI/Inventario/InformacionEELL/Sectorpublicolocal-30062025.pdf>

XEDAPEN ARAUEMAILEAK

Estatuko legeria

6/2025 Errege Lege-dekretua, ekainaren 17koa, lurralde-finantzaketako sistemen baliabideei buruzko neurriak hartzen dituena. (2025eko ekainaren 18ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/18/pdfs/BOE-A-2025-12308.pdf>

PJC/656/2025 Agindua, ekainaren 20koa, urtarrilaren 29ko PJC/51/2024 Agindua aldatzen duena; azken agindu horren bidez, Gizarte Segurantzaren kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatiko babesari, Soldatak Bermatzeko Funtsari eta 2024ko

ekitaldirako lanbide-heziketari buruzko legezko arauak garatzen dira. (2025eko ekainaren 24ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/24/pdfs/BOE-A-2025-12817.pdf>

7/2025 Errege Lege-dekretua, ekainaren 24koa, sistema elektrikoa indartzeko presazko neurriak onesten dituena. (2025eko ekainaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/25/pdfs/BOE-A-2025-12857.pdf>

Huts-zuzenketa, honena: 5/2025 Errege Lege-dekretua, ekainaren 10ekoa, gazteek 2025eko udako joan-etorrietan garraio publikoa erabiltzea sustatzeko neurriena. (2025eko ekainaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/25/pdfs/BOE-A-2025-12858.pdf>

Senatuaren Erregelamenduaren erreforma, 133. artikulua, 160. artikulutik 166.era, 168. artikulua eta 169. artikulua aldatzen dituena. (2025eko ekainaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/25/pdfs/BOE-A-2025-12859.pdf>

529/2025 Errege Dekretua, ekainaren 24koa, Europar Batasunerako Estatu Idazkaritzaren dirulaguntza bat zuzenean Europar Mugimenduaren Espainiako Kontseilu Federalari eta Ekonomia Lankidetzarako Europako Ligari nola eman arautzen duena, Europar integratzeko prozesuan balio sozial eta kulturalak sustatzeko. (2025eko ekainaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/25/pdfs/BOE-A-2025-12860.pdf>

530/2025 Errege Dekretua, ekainaren 24koa, Justizia Administrazioako langileen antolaketa-eta estatutu-xedapenak ezartzen dituen, beharrezkoak horiek udalerrietako bulego judizialetan eta justizia-bulegoetan urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoak (Justizia Zerbitzu Publikoaren efizientzia-arloko neurriak hartzen dituenak) ezarritako antolaketa-eredu judiziala ezartzeko. (2025eko ekainaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/25/pdfs/BOE-A-2025-12861.pdf>

3/2025 Lege Organikoa, ekainaren 27koa, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa (elkartzeko eskubidea arautzekoa) aldatzen duena. (2025eko ekainaren 28ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/28/pdfs/BOE-A-2025-13140.pdf>

Ebazpena, 2025eko ekainaren 26koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen baita ekainaren 10eko 5/2025 Errege Lege-dekretua (gazteek 2025eko udako joan-etorrietan garraio publikoa erabiltzea sustatzeko neurriena) baliozkotzeko erabakia argitaratzea. (2025eko uztailaren 1eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/01/pdfs/BOE-A-2025-13342.pdf>

8/2025 Errege Lege-dekretua, uztailaren 8koa, zenbait egitasmo eta programa aparteko interes publikokotzat jotzen dituen. (2025eko uztailaren 9ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/09/pdfs/BOE-A-2025-14083.pdf>

607/2025 Errege Dekretua, uztailaren 8koa, otsailaren 6ko 95/2009 Errege Dekretua (Justizia Administrazioari laguntzeko administrazio-erregistroen sistema arautzen duena) aldatzekoa. (2025eko uztailaren 9ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/09/pdfs/BOE-A-2025-14085.pdf>

611/2025 Errege Dekretua, uztailaren 8koa, ekainaren 7ko 1/2024 Legea (goi-mailako arte-irakaskuntza arautzen duena eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetasunak ezartzen dituen) aplikatzeko egutegia ezartzen duena. (2025eko uztailaren 9ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/09/pdfs/BOE-A-2025-14087.pdf>

Ebazpena, 2025eko uztailaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen baita ekainaren 17ko 6/2025 Errege Lege-dekretua (lurralde-finantzaketako sistemen baliabideei buruzko neurriak hartzen dituen) baliozkotzeko erabakia argitaratzea. (2025eko uztailaren 24ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/24/pdfs/BOE-A-2025-15311.pdf>

Ebazpena, 2025eko uztailaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen baita uztailaren 8ko 8/2025 Errege Lege-dekretua (zenbait egitasmo eta programa aparteko interes publikokotzat jotzen dituen) baliozkotzeko erabakia argitaratzea. (2025eko uztailaren 24ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/24/pdfs/BOE-A-2025-15312.pdf>

Ebazpena, 2025eko uztailaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen baita ekainaren 24ko 7/2025 Errege Lege-dekretua (sistema elektrikoa indartzeko presazko neurriak onesten dituen) indargabetzeko erabakia argitaratzea. (2025eko uztailaren 24ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/24/pdfs/BOE-A-2025-15313.pdf>

531/2025 Errege Dekretua, ekainaren 24koa, zeinaren bidez kontserbazio bereziko hamar eremu deklaritzen baitira, eremu horien eta hegaztientzako babes bereziko zazpi eremuren kontserbazio-neurriak onesten baitira eta Mediterraneoko Itsas Eskualdean Natura 2000 Sareko hamabi eremu babesturen muga geografikoak aldatzea proposatzen baita. (2025eko uztailaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/25/pdfs/BOE-A-2025-15425.pdf>

PJC/804/2025 Agindua, uztailaren 23koa, desgaitasunen bat dutenek enplegu publikoa eskuratzeko hautapen-prozesuetako baliabideak eta denborak egokitzeko eta zentzuzko beste doikuntza batzuk egiteko irizpide orokorrak ezartzen dituen. (2025eko uztailaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/25/pdfs/BOE-A-2025-15426.pdf>

6/2025 Legea, uztailaren 28koa, uztailaren 6ko 19/1994 Legea (Kanarietako Ekonomia eta Zerga Araubidea aldatzekoa) aldatzen duena, Kanarietan etxebizitza-errentamenduaren jarduerara lotutako ondare-elementuetan egiten diren inbertsioak erregulatzeko. (2025eko uztailaren 29ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/29/pdfs/BOE-A-2025-15651.pdf>

7/2025 Legea, uztailaren 28koa, Osasun Publikoaren Estatu Agentzia sortzen duena eta Osasun Publikoaren Lege Orokorra (33/2011, urriaren 4koa) aldatzen duena. (2025eko uztailaren 29ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/29/pdfs/BOE-A-2025-15652.pdf>

676/2025 Errege Dekretua, uztailaren 28koa, Gobernuako Presidentetzaren egitura onesten duena. (2025eko uztailaren 29ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/29/pdfs/BOE-A-2025-15653.pdf>

Ebazpena, 2025eko uztailaren 21ekoa, Autonomia Erkidegoen eta Tokiko Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege-dekretuaren 41.1.a) artikulua betetzen baita; 17/2014 Errege Lege-dekretuaren bidez, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantzaketa-jasangarritasunari buruzko neurriak eta beste neurri ekonomiko batzuk hartzen dira. (2025eko uztailaren 29ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/29/pdfs/BOE-A-2025-15654.pdf>

9/2025 Errege Lege-dekretua, uztailaren 29koa, jaiotzagatiko eta zaintzagatiko baimena zabaltzen duena, Langileen Estatutuaren Legearen testuategina (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi zen), Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi zen) eta Gizarte Segurantzaren Legearen testuategina (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez aldatu zen) aldatuz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko (EB) 2019/1158 Zuzentarauaren transposizioa osatzeko, zeina gurasoek eta zaintzaileek familia eta lana bateragarri egiteari buruzkoa baita eta Kontseiluaren 2010/18/EB Zuzentzua indargabetzen baitu. (2025eko uztailaren 30eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/30/pdfs/BOE-A-2025-15741.pdf>

Diputatuen Kongresuaren 1982ko otsailaren 10eko Erregelamenduaren erreforma. (2025eko uztailaren 31ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/31/pdfs/BOE-A-2025-15843.pdf>

Diputatuen Kongresuaren 1982ko otsailaren 10eko Erregelamenduaren erreforma. (2025eko uztailaren 31ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/31/pdfs/BOE-A-2025-15844.pdf>

Huts-zuzenketa, honena: 530/2025 Errege Dekretua, ekainaren 24koa, Justizia Administrazioako langileen antolaketa- eta estatutu-xedapenak ezartzen dituenak, beharrezkoak horiek udalerrietako bulego judizialean eta justizia-bulegoetan urtarilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoak (Justizia Zerbitzu Publikoaren efizientzia-arloko neurriak hartzen dituenak) ezarritako antolaketa-eredu judiziala ezartzeko. (2025eko abuztuaren 1eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/01/pdfs/BOE-A-2025-15941.pdf>

7/2025 Legea, uztailaren 30ekoa, Aiguafredako udalerriko eskualde- eta bikarriotza-adskripzioa aldatzen duena. (2025eko abuztuaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/14/pdfs/BOE-A-2025-16832.pdf>

8/2025 Legea, uztailaren 30ekoa, Landa Udalerrietako Estatutuarena. (2025eko abuztuaren 14ko BOE)

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2025-16833

716/2025 Errege Dekretua, abuztuaren 26koa, baso-suteak prebenitu, zaindu eta itzaltzeko urteko planen jarraibide eta irizpide komunak onesten dituen. (2025eko abuztuaren 29ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/29/pdfs/BOE-A-2025-17312.pdf>

Euskal Autonomia Erkidegoa

127/2025 DEKRETUA, ekainaren 17koa, ontzat ematekoa Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia, ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunei beste batzuk gehitzekoa, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikusatzailetak betetzen dituen ikuskaritzako funtzio publikoaren arloan. (2025eko ekainaren 24ko BOPV)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502797e.pdf>

128/2025 DEKRETUA, ekainaren 17koa, ontzat ematekoa Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzeritarrek norberaren edo besteren kontura lan egiteko hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak. (2025eko ekainaren 24ko BOPV)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502798e.pdf>

2/2025 FORU-DEKRETU ARAUEMAILEA, ekainaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita Zerga Bereziei buruzko uztailaren 26ko 4/2023 Foru Dekretu Arauemailea. (2025eko uztailaren 7ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/07/2503021a.pdf>

125/2025 Dekretua, ekainaren 17koa, 2025eko Urteko Estatistika Programa onesten duena. (2025eko uztailaren 8ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/07/2503041e.pdf>

138/2025 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Merkasaretza Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sarea sortu eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehazten duena. (2025eko uztailaren 17ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/07/2503138e.pdf>

139/2025 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Euskadin erlezaintza antolatzekoa. (2025eko uztailaren 18ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/07/2503148e.pdf>

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 2koa, Euskadiko Prezioen Batzordeko presidentearena, Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakariarena, auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoko

zenbait udalek aurkeztutako 2025. urterako tarifak onartzekoa. (2025eko uztailaren 23ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/07/2503224e.pdf>

144/2025 DEKRETUA, 2025eko uztailaren 8koa, gazteei eta 40 urtetik beherakoei lehen etxebizitza eskuratzeko abalak emateko programa arautzekoa. (2025eko abuztuaren 4ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/08/2503402e.pdf>

1/2025 FORU-ARAUUA, maiatzaren 9koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga-sistemaren erreforma eta zerga-arloko beste aldaketa batzuk onestekoa. (2025eko abuztuaren 12ko EHAA)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/05/15/c2503564.pdf>

161/2025 DEKRETUA, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legea garatzen duena. (2025eko abuztuaren 25eko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/08/2503641e.pdf>

Arabako Lurralde Historikoa

5/2025 Foru Araua, ekainaren 11koa, Arriagako Kontzejua desagitea arautzen duena. (2025eko ekainaren 27ko ALHAO)

https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2025/072/2025_072_01890_E.pdf

8/2025 Foru Araua, uztailaren 9koa, 1/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 17koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko urtarrilaren 19ko 12/1993 eta otsailaren 16ko 1/1999 foru dekretu arauemaileak aldatzeari. (2025eko uztailaren 23ko ALHAO)

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2025/083/2025_083_02222_E.pdf

Bizkaiko Lurralde Historikoa

Aldi horretan ez da arau-jarduerarik egon.

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

10/2025 Foru Dekretua, ekainaren 24koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzekoa. (2025eko ekainaren 25eko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/06/25/c2504752.pdf>

463/2025 Foru Agindua, uztailaren 14koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan 2025/2026 kanpainarako ehiza-aldiak eta baldintza orokorrak finkatzekoa. (2025eko uztailaren 21eko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/07/21/c2505304.pdf>

15/2025 Foru Dekretua, uztailaren 29koa, ehizarako segurtasun-eremu jakin batzuk salbuesten dituen eta eremu horiei eragiten dieten uxaldietan ehiza arautzen duena. (2025eko abuztuaren 26ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/08/26/c2505887.pdf>

Nafarroako Foru Komunitatea

6/2025 Foru Legea, maiatzaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena. (2025eko ekainaren 26ko BOE)

<https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5957827>

7/2025 Foru Legea, ekainaren 4koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen. (2025eko uztailaren 2ko BOE)

<https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5957902>

8/2025 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, Taxiei buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena. (2025eko uztailaren 13ko BOE)

<https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5957953>

4/2025 Legea, uztailaren 24koa, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Ekonomia Ituna onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legea aldatzen duena. (2025eko uztailaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/25/pdfs/BOE-A-2025-15423.pdf>

5/2025 Legea, uztailaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Motordun ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legearen testu bategina, urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsia, eta uztailaren 14ko 20/2015 Legea, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena. (2025eko uztailaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/25/pdfs/BOE-A-2025-15424.pdf>

9/2025 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena. (2025eko uztailaren 29ko BOE)

<https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5957965>

Huts-zuzenketa, honena: 9/2025 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena. (2025eko abuztuaren 22ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/22/pdfs/BOE-A-2025-17081.pdf>

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN TOKI-EREMUARI BURUZKO LEGEDIA

Aragoiko Autonomia Erkidegoa

1/2025 Lege Dekretua, apirilaren 9koa, Aragoiko Gobernuarena, Aragoiko Autonomia Erkidegoaren 2025erako prestazio ekonomiko eta dirulaguntza sozial jakin batzuen inguruan presazko neurriak hartzekoa. (2025eko ekainaren 20ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/20/pdfs/BOE-A-2025-12536.pdf>

65/2025 Dekretua, ekainaren 25ekoa, Aragoiko Gobernuarena, zeinaren bidez, bat etorrita Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientzia Neurrien Lege Organikoan (1/2025, urtarrilaren 2koa) jasotzen diren aurreikuspenekin, Aragoiko Autonomia Erkidegoan 2025eko uztailaren 1ean eratu behar diren Lehen Auzialdiko Auzitegiatarako bulego judizialaren diseinua eta egitura adosten baitira. (2025eko ekainaren 30eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/30/pdfs/BOE-A-2025-13232.pdf>

66/2025 Dekretua, ekainaren 25ekoa, Aragoiko Gobernuarena, Aragoiko Autonomia Erkidegoko udalerrietan justizia-bulegoen taldeak sortzen baitira. (2025eko ekainaren 30eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/06/30/pdfs/BOE-A-2025-13233.pdf>

3/2025 Legea, ekainaren 26koa, familia-enpresetarako laguntza fiskalei buruzkoa eta Aragoiko Autonomia Erkidegoak lagatako tributuen arloan emandako xedapenen testu bategina aldatzen duena; testu bategin hori Aragoiko Gobernuaren irailaren 26ko 1/2005 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsi zen. (2025eko uztailaren 17ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/17/pdfs/BOE-A-2025-14790.pdf>

5/2025 Lege Dekretua, uztailaren 18koa, Aragoiko Gobernuarena, 2025eko uztailaren 11n eta 12an izandako euri-jasek Aragoi

eragindako kalteak eta galerak konpontzeko presazko neurriak ezartzen dituen. (2025eko abuztuaren 15eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/15/pdfs/BOE-A-2025-16908.pdf>

Kanarietako Autonomia Erkidegoa

1/2025 Legea, ekainaren 3koa, Fuerteventura irlan Jandía natura-parkeko Cofete hondartzan zegoen landa-egonlekuaren mugaketa grafikoari buruzkoa. (2025eko uztailaren 17ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/17/pdfs/BOE-A-2025-14791.pdf>

2/2025 Legea, ekainaren 26koa, Kanarietako Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko, kudeaketa eraginkorra izateko eta kalitatea areagotzeko eta, halaber, haurrak zorizko jokoen eta apustuen eremuan babesteko presazko neurriak ezartzen dituen. (2025eko uztailaren 29ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/29/pdfs/BOE-A-2025-15655.pdf>

Kantabriako Autonomia Erkidegoa

3/2025 Legea, ekainaren 30koa, Kantabriako Gazte Politikei buruzkoa. (2025eko uztailaren 15eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/15/pdfs/BOE-A-2025-14604.pdf>

Kataluniako Autonomia Erkidegoa

11/2025 Lege Dekretua, maiatzaren 22koa, Kataluniako Generalitateko 2023rako aurrekontuei, zeinak 2025era luzatu baitira, kreditu-gehigarria ematekoa. (2025eko uztailaren 4ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/04/pdfs/BOE-A-2025-13662.pdf>

10/2025 Lege Dekretua, maiatzaren 13koa, martxoaren 25eko 6/2025 Lege Dekretua aldatzen duena; azken horren bidez, presazko neurriak ezartzen dira establezimendu turistikoetako egonaldien gaineko zergaren arloan. (2025eko uztailaren 15eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/15/pdfs/BOE-A-2025-14601.pdf>

12/2025 Lege Dekretua, ekainaren 3koa, Kataluniako elektrizitate-horniduraren erresilientzia areagotzeko dena. (2025eko abuztuaren 15eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/15/pdfs/BOE-A-2025-16905.pdf>

13/2025 Lege Dekretua, uztailaren 1ekoa, 2025/2026 ikasturtetik aurrera eskolatzeko presazko neurriak hartzen dituen. (2025eko abuztuaren 15eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/15/pdfs/BOE-A-2025-16906.pdf>

14/2025 Lege Dekretua, uztailaren 15ekoa, maiatzaren 4ko 5/1994 Legea aldatzen duena; lege horren bidez, Katalunian suteak prebenitu eta itzaltzeko zerbitzuak eta salbamendu-zerbitzuak erregulatzen dira. (2025eko abuztuaren 15eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/15/pdfs/BOE-A-2025-16907.pdf>

Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa

1/2025 Legea, uztailaren 3koa, Gaztela eta Leongo Publizitate Institutuzionalari buruzko maiatzaren 28ko 4/2009 Legea aldatzen duena. (2025eko uztailaren 21eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/21/pdfs/BOE-A-2025-15048.pdf>

Extremadurako Autonomia Erkidegoa

2/2025 Lege Dekretua, maiatzaren 19koa, hirigintza-arloa soiltzeko dena, lurralde-plangintza eta -exekuzioa azkarrago onets daitezen, etxebizitza-promozioa eta energiaren nahiz funtzio publikoaren alorretako presazko beste neurri batzuk bultzatze aldera. (2025eko uztailaren 3ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/03/pdfs/BOE-A-2025-13563.pdf>

3/2025 Lege Dekretua, maiatzaren 27koa, natura-hondamendiek bereziki kaltetutako ardi- eta gerezi-ustiatzeari salbuespenezko larrialdi-laguntzak ematekoa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren esparruan. (2025eko uztailaren 31ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/21/pdfs/BOE-A-2025-15046.pdf>

4/2025 Lege Dekretua, ekainaren 24koa, funtzio publikoaren arloko presazko neurriei buruzkoa. (2025eko abuztuaren 9ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/09/pdfs/BOE-A-2025-16495.pdf>

Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa

1/2025 Legea, ekainaren 13koa, gela turistiko gisa merkaturatzen diren etxebizitzetan festak eta jarduera gogaikarriak saihestekoa. (2025eko uztailaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/14/pdfs/BOE-A-2025-14460.pdf>

2/2025 Legea, ekainaren 18koa, Balear Uharteetan pertsonak eta natura-ingurunea babesteko presazko neurriak ezartzen dituen, eskortako hegaztien abeltzaintza-ustiatzeari intentsibo jakin batzuei dagokienez. (2025eko uztailaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/14/pdfs/BOE-A-2025-14461.pdf>

4/2025 Lege Dekretua, apirilaren 11koa, legez kanpoko eskaintzaren kontrakoa, eskaintzarako neurri iragankorrak ezartzekoa eta Balear Uharteetako kalitate turistikoaren aldekoa. (2025eko uztailaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/14/pdfs/BOE-A-2025-14462.pdf>

5/2025 Lege Dekretua, maiatzaren 16koa, presazko eta salbuespenezko neurriak ezartzen dituen Palmako eta Eivissako hiriburutzaren, Menorcako biosfera-erreserbaren eta hondakinak Formenteratik Eivissara garraiatzeko moduaren inguruan. (2025eko uztailaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/14/pdfs/BOE-A-2025-14463.pdf>



3/2025 Legea, uztailaren 4koa, Balear Uharteetan norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko neurriei buruzkoa. (2025eko uztailaren 21eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/21/pdfs/BOE-A-2025-15047.pdf>

Errioxako Autonomia Erkidegoa

3/2025 Legea, ekainaren 23koa, aringarriak behar dituzten pertsonen bermeei eta eskubideei buruzkoa. (2025eko uztailaren 2ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/03/pdfs/BOE-A-2025-13560.pdf>

- 4/2025 Legea, uztailaren 1ekoa, Errioxako Paisaiarena. (2025eko uztailaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/12/pdfs/BOE-A-2025-14378.pdf>

5/2025 Legea, uztailaren 21ekoa, Landa Inguruneari Laguntzeko Neurri Fiskalena. (2025eko abuztuaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/14/pdfs/BOE-A-2025-16834.pdf>

6/2025 Legea, uztailaren 21ekoa, Ogasuneko, Aurrekontuetako, Zergetako eta Administrazioako Neurriena. (2025eko abuztuaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/08/14/pdfs/BOE-A-2025-16835.pdf>

Valentziako Autonomia Erkidegoa

Huts-zuzenketa, honena: 6/2025 Legea, maiatzaren 30ekoa, Generalitatearen 2025eko Ekitaldirako Aurrekontuei buruzkoa. (2025eko uztailaren 2ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/03/pdfs/BOE-A-2025-13561.pdf>

Huts-zuzenketa, honena: 8/2024 Legea, abenduaren 30ekoa, Valentziako Autonomia Erkidegoko Irisgarritasun Unibertsalari buruzkoa. (2025eko uztailaren 13ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2025/07/14/pdfs/BOE-A-2025-14458.pdf>

JURISPRUDENTZIA

Auzitegi Goren

{Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1902/2025 epaia} Auzitegi Gorenaren 514/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egin du hemen aztertutako erakunde juridikoak edo, hobeto esanda, ahal administratiboak ez direla aske erabiltzekoak, Zergen Lege Orokorrean lege jasotzen diren baldintzatan erabiltzekoak baizik; epaitutako kasuan, zergetan eragiten duen negozio, egintza edo egitatearen kalifikazio gisa aurreikusten den ahala ez da nahikoa egindako erregularizazioa ekarri duten ondorioak deklaratzeko; izan ere, baliteke zergapekoak egindako kalifikazioa, nahiz eta egitateetan ados egon, egokia ez izatea. Horrelakoetan, Administrazioa gaitzen da berriro kalifikatu dezan. Halere, berdin-berdin gerta liteke zergapekoak aipatutako egitateak egiaztatuta ez egotea; horrelakoetan, Administrazioak beste kalifikazio bat egin ahalko du, egiaztatutako egitateekin bat. Baina ezin da onartu Administrazioak kalifikazioaren irudia muga naturaletatik harago “zabaltzea”, ez delako gauza bera negozio bat kalifikatu edo birkalifikatzea edo negozio hori bazter utzi eta beste negozio bat dagoela esatea, azken horixe izaki Administrazioak egin duena.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/04e83d935e823c54a0a8778d75e36f0d/20250515>

{Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1904/2025 epaia} Auzitegi Gorenaren 505/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du ezen, energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasa arautzen duten ordenantza fiskalak aldatzen diren kasuetan, tasa ezartzeko hasierako akordioa egonez gero, ezin dela beste ezarpen-akordio bat eskatu, ordenantza arautzailearen aldaketaren norainokoa edozein izanda ere, baldin eta ez bada hura kentzeko nahitaezko erabakirik hartu. Udalek, energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioek tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziari dagokion tasa arautzen duen zerga-ordenantza bat ezarri edo aldatzen dutenean, zerga-oinarria eta karga-tasa zehazteari dagokionez, legean xedatutakoa bete behar dute, halako moldez non ez duten legezko gaikuntzarik tasa hori aprobetxamendu berezietan bakarrik zergapetzeko, instalazio horietarako jabari publikoa erabiltzen denean, kasu batzuetan, erabilera pribatiboa egiten bada. Erabilera pribatiborako aurreikusten den zerga-oinarria ez da bateragarria aprobetxamendu bereziak zergapetzeko erabiltzen den legezko tasa-erregularioarekin, ezta bi karga-tasa aplikatzearekin ere, % 5koa bata, erabilera handiagoko kasuetarako, eta % 2,5koa bestea,

erabilera txikiagoko kasuetarako, erabilera pribatiboaren berezko irizpideekin zehaztutako kalkulu-oinarriaren arabera jarduten dutelako, eta ez aprobetxamendu bereziarenekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b5c19c389c4513f0a0a8778d75e36f0d/20250515>

{Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1931/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 512/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrinatzat jotzen du Zerga Administrazioak ezin duela, zerga-saihestearen aurkako arauetara jo gabe, nahiz eta ulertzen duen egiten den negozioa edo jarduera itxuraz bestelakoa dela, pertsona juridiko batek formalki aitortutako jarduera ekonomikoa ez ezagutu eta hark lortutako errentak jarduera ekonomiko bera egiten duen pertsona fisiko bati egotzi; izan ere, erakunde juridikoak, edo, areago, administrazio-ahalak, hemen aztertutakoak bezalakoak, ez dira libreki erabiltzekoak, baizik eta legez aurreikusitako baldintzetan erabili behar dira, eta, epaitutako kasuan, zerga-garrantzia duen negozio, egintza edo egitatearen kalifikazio gisa aurreikusitako ahala ez da nahikoa egindako erregularizazioa ekarri duten ondorioak deklaratzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7a11ba23f606a383a0a8778d75e36f0d/20250515>

{Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1941/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 504/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzaren jarduketaren ondorioz ofizioz egindako altak atzeraeragina duela errekerimenduan edo aktan agertzen den likidazio-aldiaren hasiera-datara, arauz hala ezartzen baita, eta ez da iristen kuotak erreklamatzeko eskubidea preskribatu den aldietara. Aurrekoak, baina, ez du galarazten alta eskatu behar zuenari dagoeneko preskribatuta dauden aldi horietan izandako erantzukizunak eskatzea, zeinak egokitzen diren prozeduren bidez ondorioztatu beharko baitira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a5d2bf64c8fc34caa0a8778d75e36f0d/20250515>

{Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 11893/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 513/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi du, Esparru Akordioaren babespean eta haren xedearekin bat, aldi baterako lan-harremana luzea bada, bitarteko-kondizioaren abusuarekin, bitarteko funtzionario horrek eskubidea daukala gradua karrerako funtzionarioen baldintza berberetan aitortzeko. Ondorioz, abusuzko bitartekotasun baten aurrean gaudenean,

Estatuko funtzionario-araudia aplikatzekoa zaie kidegoan edo eskalan karrerako funtzionario gisa sartu ez diren bitarteko funtzionarioei, eta, abusuzko egoera egiaztatu ondoren, bitarteko funtzionarioek interes legitimoa dute bitarteko funtzionario izendatu zituzten kidegoan edo eskalan dagokien taldeko mailaren barruan finkatutako gradu pertsonala aitortzea eskatzeko, uzi horren onespenez edo ezespenak interes profesionalen eremuan eragiten duelako. Bitarteko funtzionario batek egintza baliatzeko uneari dagokionez, gradu pertsonal finkatua aitortzeak ondorioak baitauzka langile horientzat eta aitortza horren edukiari eta irismenari kalterik ez egiteko, ondorioztatu dugu kargugabetu egin bada ere ezin daitekeela Administrazioak kidego berean berriro izendatzearen mende egon eta, halaber, bitarteko funtzionario beste talde, kidego edo eskala batean izendatu izana ere ez dela oztopoa, balioetsita, gradu-finkapena aitortzen bada, aitortza horrek hasieran bitarteko funtzionario aritu zen taldean, kidegoan edo eskalan izango dituela ondorioak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/683cc24fbfd88660a0a8778d75e36f0d/20250515>

{Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1899/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 508/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Nagusiak berretsi egiten du, zerbitzu-eginkizunetan lan egin duen funtzionario batek denbora hori goragoko gradu bat finkatzeko aplikatu ahal izan dezan, zerbitzu-eginkizunetan behin-behinean betetako lanpostua behin betiko lanpostu bihurtu behar dela, etenik gabe, edo bestela, etenik gabe baita ere, maila bereko edo goragoko beste lanpostu bat eskuratu behar duela behin betiko, arauak hala ezartzen duelako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/de267657e5001192a0a8778d75e36f0d/20250515>

{Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2029/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 510/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa finkatu du lege-iruzurraren kontzeptua prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuei aplikatzeak berekin dakarrela hori arautzen duen araudiaren babesean egitea, erregulazio diferentea daukan, bete behar dituen legezko eta arauzko baldintzak betetzen ez dituen eta kontratuaren beraren helburua (langileak lanbide bat behar bezala betetzeko beharrezkoa den lanbide-heziketa teorikoa eta praktikoa eskuratzea) zapuztuta daukan lan-kontratu komun bat saihesteko; beraz, horrek berekin dakar lan-kontratua mugagabea eta lanaldi osokoa bihurtzea. Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua lege-iruzurtzat jotzeko, enpresako titularraren jokabidea aintzat hartu behar da. Langileak enplegatzaileak haren esku jarritako prestakuntza egiteko betebeharra betetzen ez badu eta enplegatzaileak langileak garatutako prestakuntza-jardueraren koordinazio-, jarraipen- eta laguntza-betebeharrak bete baditu,

ezingo da esan kontratazioan iruzurrik egin denik; beraz, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua ez da mugagabea eta lanaldi osokoa bihurtu beharko. Hala, langileak enpresako titularrak haren esku jarritako prestakuntza teorikoa egiteko betebeharra ez betetzeak bakarrik ez dakar, “per se”, kontratazioan lege-iruzurra egon dela adieraztea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f4c4cf2f51fb951ca0a8778d75e36f0d/20250522>

{Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 853/2022 epaia) Auzitegi Gorenaren 519/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 6koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezarri duenez, xedapen-proiektu orokor bat aldatzen bada, informazio edo entzunaldi publikoaren izapidearen ondoren, modu substantzialean aldatu ere, xedapenaren egituraren eta arau-oinarriaren garrantzitsu, ezin da justifikatu jendaurreko informazioaren izapidea ez errepikatzea, baldin eta aldaketak informazio publikoaren aurreko izapidean egindako oharren ondorioz gertatzen badira, ez eta errekurtsogileak Estatu Kontseiluan entzunaldi-izapide bat eduki izana ere, komenigarritzat jo zuena alegatu ahal izan baitzuen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6706c86a87bffe87a0a8778d75e36f0d/20250515>

{Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1898/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 517/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 6koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, Administrazioaren eta enplegatu publikoen ordezkarien artean lortutako lan-baldintzen akordio batetik eratorritako funtzionarioen erretiro-sariei buruzko auziak ezin ditu gizarte-arloko jurisdikzioak ezagutu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak baizik; izan ere, neurriaren jatorria lan-baldintzen akordioa da, eta gizarte-arloko jurisdikzioak ez du horren berri izan behar. Gainera, erretiro-sariak ordainsari-izaera du, ez baitu konpentsazio-helbururik; aitzitik, erretiro-adinera iristeagatik jasotzen diren zenbatekoak dira, eta ezin da balioetsi erretiro-sariaren helburua Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko prestazioak osatzea, zabaltzea edo aldatzea denik, funtzionario-harremanaren amaieran ordainketa bakarrean ordaintzen den zenbatekoa baita, eta ez du gizarte-laguntza behar duen gertakizun bat estaltzeko helbururik, baizik eta funtzionario-harreman osoan egindako lana eskertzekoa. Nolanahi ere, argi dago ustezko borondatezko hobekuntza, erretiro-saria, ez dela lan-kontratuan itundu, ez hitzarmen kolektiboan, ez langileen ordezkarien eta enpresaburuen artean

negoziatu eta itundutako itun edo akordio kolektiboan: enplegatu publikoen ordezkariak eta administrazio demandatuak sinatutako akordiotik sortu zen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/dae857d5c18b4ca3a0a8778d75e36f0d/20250515>

{Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2230/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 523/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 7koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunean ezarritako Arbitraje Batzordearen ebazpenaren aurka jarritako errekurtsua, eta berresten du eztabaidatutako entregak lurralde erkidean kokatu behar direla, eztabaidatutako ondasunak eskuragarri jartzeko lekua Sevillan baitago. Ondorio horietarako, garrantzitsua da konpainiak kostuak aurrezteko ekoizten duela hiri horretan (bereziki, garraioari dagokionez).

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/012a2648770e2795a0a8778d75e36f0d/20250529>

{Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1883/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 542/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezartzen duenez, prozesua berdintasunerako oinarritzko eskubidea eta eginkizun publikoak berdintasunez betetzeko eskubidea ustez urratu izanean bakarrik oinarritzen bada, Konstituzio Batzordean Gorteetako letradu-eginkizunak betetzetik baztertua izan delako, legegintzaldian (aurreko bi legegintzaldietan egin moduan) batzorde horretara itzuli eta eginkizunak Konstituzio Batzordean eta Ogasun eta Funtzio Publikoko Batzordean elkarrekin egite hori gerora sortutako zirkunstantzia bat da, ustezko babes judizialaren interes legitimoa desagertzea eta, gainera, egikaritutako uzia betetzea eragiten duena.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/22f0d115a34f22d9a0a8778d75e36f0d/20250515>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1885/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 541/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien

Auzitegi Gorenak ezartzen duenez, Administrazioaren jarduerarik eza hautemateko, Administrazioak eman beharreko prestazioa aplikazio-egintzarik behar ez duen xedapen orokor batean edo administrazio-egintza, -kontratu edo -hitzarmen batean jaso behar da. Ezin da Administrazioaren jarduerarik ezatzat jo jarduerarik ez egotea, pasiboa izatea, motel aritzea edo eraginkorra ez izatea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f54828958c939fd7a0a8778d75e36f0d/20250515>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1886/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 525/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak onetsi egin du Gobernuaren egintza baten aurka jarritako errekurtsua, zeinaren bidez ezezko erantzuna eman baitzitzaion Legebiltzarrean egindako informazio-eskaerari, eta aitortu du erreklamatzailak eskubidea daukala Gobernuak eskatutako informazioa gehienez ere 30 eguneko epean emateko; izan ere, eskariaren orokortasuna eta eskatutako informazioaren bolumena ez dira arrazoi tekniko nahikoak, informazio egokia ematea eragozteko. Gainera, baieztapen horrek ez ditu inola ere justifikatzen senatariaren eskaera (2023ko azken lau hilabetei buruzko informazioa) asebetetzea eragotzi duten arrazoiak edo motibo teknikoak. Halaber, ezin da balioetsi eskaera anbigua denik, eta, hala, Gobernuak adierazi du Estatuko Abokatutzak 4.000 txosten idatzi dituela Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioan 2023ko irailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean. Legebiltzarkideek eskubidea dute gai publikoetan parte hartzeko; beraz, informazio publikoa oinarritzko eskubide horretan sartzen da, eta senatariaren interes publiko gorenari Gobernuaren ekintza kontrolatzean datza. Horretarako, eskatu duen informazioa jaso eta ebaluatu behar du, datu pertsonalen babeserako eskubideari kalterik egin gabe, hala egokitzen denean.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/52682ada9076c3f5a0a8778d75e36f0d/20250515>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1895/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 527/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazi du diziplina-espediente bat izapidetzen duen Administrazio Publikoak ez daukala interesdunaren kondizioa, diziplina-espedienteak jarraitzea eskatzeko ondorioetarako, errua egotzi zaion funtzionarioak izapidean kondizio hori galdu badu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4b967bb5eeb741a7a0a8778d75e36f0d/20250515>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1896/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 532/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien

Auzitegi Gorenak ezartzen duenez, Mugikortasuneko agenteen jaiegunetako lana erregulatzeko arau berezi bat egoteak, zeinak, gainera, librantza-egun gehigarrietan datzan konpentsazio espezifiko bat ere jasotzen baitu, arau generikoa aplikagarria ez izatea eragiten du.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8dc8cea34c56da0da0a8778d75e36f0d/20250515>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2022/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 544/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du erakunde sindikalek izendatutako ordezkariak parte har dezaketela Estatuko Administrazio Publikoaren barruan lanpostuak betetzeko lehiaketetako balorazio-batzordeetan, hautaketa-organoetako kideak beti norberaren izenean jardun behar dutelako araua ez baita aplikatzekoa, zeinaren arabera kideak ezin baitira aritu beste norbait ordezkatzeko edo beste norbaiten kontura; izan ere, debeku horren aplikazio-eremua hautaketa-organoetan dago, eta ezin da zabaldu lanpostuak lehiaketa bidez hornitzeko prozeduretar. Gainera, 463/1995 Errege Dekretuaren arauzko garapenak, balorazio-batzordeen osaerari dagokionez, ez dio kontra egiten Enplegatu Publikoen Oinarriko Estatutuaren testu bateginean ezartzen denari.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0f66d4b7b70d8e77a0a8778d75e36f0d/20250522>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2406/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 533/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egin du Madrilgo Udaleko parke-agenteen konpentsazioa, nahitaez lan egin behar duten jaiegunak konpentsatzekoa, haien erregulazio espezifikoan jasotzen dela; izan ere, parke-agenteen igande eta jaiegunetako lana konpentsatu egiten da, urteko zenbaketan ohikoa dena baino iraupen laburragoko lanaldia eginez. Horrek izaera berezia ematen dio, eta, hala, 2005eko parke-agenteen lanaldien eta ordutegien araubidearen testu bateginak adierazten du, urteko benetako lanaldiei begiratuta, parke-agenteen lanaldiak lanaldi arruntak (206) baino 57 lanegun gutxiago dituela. Beraz, lanaldi-kopuru hori igande eta jaiegunetan lan egiteagatiko konpentsazioa da, jada kendutako asteko atsedeenari kalterik egin gabe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a94559eef82d2a69a0a8778d75e36f0d/20250606>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2030/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 545/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berresten du: arkitektura-zerbitzuen kontratazioa prestazio intelektualtzat jotzen da adjudikazio-irizpideei buruzko Estatuko kontratazio-araudian jasotzen diren espezialitateak aplikatzeko orduan. Araudian ezartzen denez, xedetzat prestazio intelektualak dituzten kontratuetan, kalitatearekin lotutako irizpideak eskaintzen balioespenean esleitu daitekeen puntuazioaren % 51 izan beharko dira gutxienez.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c5ca62ea1e3b476ea0a8778d75e36f0d/20250522>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1958/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 550/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 12koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak onetsi egiten du jarritako errekurtsua, eta adierazi du ez dela bidezkoa aurkeztutako kexa preskribatu izanagatik artxibatzea. Hala, fiskalaren jarduna ikertzeko diziplina-espedienteak ireki behar da; izan ere, preskripzio-epea zenbatzeko "dies a quo" ezin da izan fiskalak bere azken idazkiak aurkeztu zituen eguna. Idazki horietan, demandatzaileak arau-hausletzat jotzen du fiskala, eta fiskalak aurka egiten die erreforma-errekurtsoei eta apelazio-errekurto subsidiarioei. Egia da idazki horiek sinatu ondoren egin bide zela legez kontrako egintza, baina ez zen agortu demandatzaileak arau-hausletzat jotzeko abiatutako jarduketaren ondorioak, kausa artxibatu arte proiektatu baitziren, aldi baterako. Azken batean, kausa artxibatzea erabaki arte, errekurtsogilea zigor-arloko kausa baten mende egon zen, non alderdi akusatzaile bakarra Fiskaltza izan baitzen. Fiskaltzak atzera egin ahal izan zuen, eta orain demandatzailea denaren errekurtsoei aurre egin ez. Kausa hartan, gainera, fidantza handia eskatu zioten, fiskalak eskatuta, eta, kexa 2023ko apirilaren 4a baino lehen aurkeztu izan balu, egun hartan idatzi baitzen artxibatzeko autoa, kexa goiztiarra zela esan ahalko zatekeen, errekurto horiek zintzilik zeudelako artean.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/06eba4e5487e254ba0a8778d75e36f0d/20250522>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2153/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 562/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 13koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak interpretazio-irizpidetzat jotzen duenez, Administrazioaren ondare-erantzukizuna eskatzeko administrazio-prozedura batean, jurisdikzio zibilaren aurrean aurretiazko eginbideen eskaera bat jartzeak, entitate aseguratzailearen identifikazio-inguruabarrak lortzera bideratuak, zeinarekin administrazio demandatuak kalteengatiko erantzukizun-asegurua hitzartuta eduki dezakeen, ez du eteten ondare-erantzukizuna eskatzeko egintzaren preskripzioa, formulatutako aurretiazko eginbideen xedeak ez baitu loturarik preskripzioa aztertu zaion egintzarekin.

Egintza horrek Administrazioaren ondare-erantzukizuna eskatzea zuen helburu, eta, hori eskatzeko, ez da ezinbesteko baldintza kaltea egozten zaion administrazioak erantzukizun zibileko aseguru duen ala ez jakitea. Egintza eta erantzukizun desberdin eta autonomoak dira, nahiz eta elkarrekin gauzatu daitezkeen: lehenengoa, aseguratzaileraren aurkako zuzeneko egintza, zeina kaltetuarentzat, zeharka eta lege-xedapenez, kontratu batean sortzen baita, eta bigarrena, hemen zalantzan jarritakoa, Administrazioaren aurka bideratu dena eta legez kanpo egindako jarduketa bera daukana iturri.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e507bfddcd405b8ba0a8778d75e36f0d/20250523>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2310/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 560/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 13koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du bidezkoa dela herritarren segurtasunaren espezialitatera lotutako osagarri espezifiko berezia aitortzea, ez bakarrik funtzionarioa osagarri espezifiko hori esleituta daukan lanpostu bati atxikita dagoenean, baita beste lanpostu batzuetatik funtsean berdinak diren eginkizunak betetzen direnean ere. Hedatu nahi den epaiak onuradun egindakoen egoera juridiko berbera dagoenean bezala, kasu honetan Administrazioak berak aitortzen du identitate hori; bada, gainerako betekizunez gainera, ondorio-hedapenaren bide prozesala ere egokia da berdintasuna lortzeko, zeinaren zerbitzura baitago epai judizialaren ondorioen hedapen-gertakariaren bide prozesala.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c495fc4d253922c1a0a8778d75e36f0d/20250530>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2298/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 557/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 13koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du, Estatuak natura-eremuak antolatzeke gidalerroak ezartzeko daukan eskumena berretsita, natura-baliabideak antolatzeke arauzko gidalerroak plangintza ekologikoaren eta, beraz, natura-baliabideak antolatzeke planen maila gorena direla materialki, eta plan horiek arauetan ezarritako hierarkia-printzipioaren arabera bete behar direla. Parke Nazionalen Sarerako ezarritako gidalerroak autonomia-erkidegoei zuzendutako oinarritzko gidalerroak ere badira, haien eskumeneko natura-eremuen gaineko plangintza-ahala gauzatzean kontuan har ditzaten. Zonakatze-irizpideak oinarritzko gidalerro horien parte dira; izan ere, hala jasotzen da berariaz aplikatu beharreko araudian, eta, gainera, irizpide horiek, berez, funtsezko osagaitzat hartzen dira natura-eremu babestuak planifikatu eta kudeatzeko. Administrazioaren irizpidekotasunak ez du ahalbidetzen gidalerroan ezarritako metodologia aldatzea, Estatuak planifikatzaileak aukera hori erabili baitu, legitimoki erabili ere, horretarako eskumena duelako, 42/2007 Legean jasotako balioak babesteko; izan ere,

Konstituzio Auzitegiak adierazi zuen bezala, gidalerro horiek plangintza ekologikoaren maila gorena dira materialki, piramide-egitura baten erpinak, eta, beraz, autonomia-erkidegoek onartutako planak haien mende jarri behar dira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8b88d25c1c04baaea0a8778d75e36f0d/20250530>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2013/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 567/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina berretsi du. Doktrina horren arabera, hautaketa-prozesuetan merezimendu gisa baloratzeko, Gizarte Segurantzaren Mutua Laguntzaileetan emandako zerbitzuak Osasun Sistema Nazionalan emandakoen parekoak dira, eta mutualitateek emandako osasun-prestazioa Osasun Sistema Nazionalan integratutako zerbitzuen parte da, mutualitate horiek hurbilago baitaude Osasun Sistema Nazionalan integratutako zentroetatik, itundutako osasun-zentro pribatuetatik baino.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e0a32a7f4381c262a0a8778d75e36f0d/20250522>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2020/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 568/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: kasu zehatz horretan, enplegatzaile-ondorengotza baten ondorioz iraungi beharreko lan-kontratua daukan langile batek, estatutupeko langile finko gisa jabetzen bada lanpostu batez, lan-harreman hori izaten jarraitzea aukeratu dezake, eta, ondorioz, estatutupeko langile finko gisa lanpostu bat betetzearekin bateraezina denez, dagokion eszedentzia-egoera administratiboan deklaratu beharko da estatutupeko lanpostu horri dagokionez, arauz hala ezartzen baita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/51d9f9316acc6200a0a8778d75e36f0d/20250522>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2257/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 571/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrinatzat jotzen du kalifikazio-ahalak ezin direla trukatu. Administrazioak egin duenak alde batera utzi du alderdiek prestazioak (zehazki, zerbitzuen ordainketak) egitean bete duten negozio juridikoa. Horrela, negozio juridiko hori alde batera utzi da ustezko kalifikazioaren prozesuan, eta, elementu jakin bat (ordainketan datzan prestazioa) isolatuta, kalifikazioa guztiz bereizi da kontratatzaileek ezarritako negozio hartatik, eta beste negozio juridiko bat betetzeari egotzi zaizkio prestazio horren kausa, helburua eta zerga-ondorioak, partzialki desberdinak diren subjektuen arteko negozio bat betetzeari (hau da,



jokalariaren eta agentearen arteko ordezkartza-kontratua betetzeari).

Hala, zerga-legeak kalifikazio-eragiketari uzten dizkion marjinak gainditu dira, nabarmen eta modu eztaba daezinean, Administrazioa ez delako inola ere mugatu egindako negozioa kalifikatzera eta negozio horren zerga-betebeharrak deklaratzera: negozio horren fluxu ekonomikoa isolatu du, eta beste negozio-eskema paralelo batean kokatu, zeina, esaten denez, alderdiek benetan nahi dutena baita, zerga-betebeharrak sortzen dituen ordainketa-prestazioaren kausa gisa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/85d4bb50efa58c46a0a8778d75e36f0d/20250529>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2249/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 564/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du, Estatuak natura-eremuak antolatzeke gidalerroak ezartzeko daukan eskumena berretsita, natura-baliabideak antolatzeke arauzko gidalerroak plangintza ekologikoaren eta, beraz, natura-baliabideak antolatzeke planen maila gorena direla materialki, eta plan horiek arauetan ezarritako hierarkia-printzipioaren arabera bete behar direla. Parke Nazionalen Sarerako ezarritako gidalerroak autonomia-erkidegoei zuzendutako oinarritzko gidalerroak ere badira, haien eskumeneko natura-eremuen gaineko plangintza-ahala gauzatzean kontuan har ditzaten. Zonakatze-irizpideak oinarritzko gidalerro horien parte dira; izan ere, hala jasotzen da berariaz aplikatu beharreko araudian, eta, gainera, irizpide horiek, berez, funtsezko osagaitzat hartzen dira natura-eremu babestuak planifikatu eta kudeatzeko. Administrazioaren irizpidekotasunak ez du ahalbidetzen gidalerroan ezarritako metodologia aldatzea, Estatuak planifikatzaileak aukera hori erabili baitu, legitimoki erabili ere, horretarako eskumena duelako, 42/2007 Legean jasotako balioak babesteko; izan ere, Konstituzio Auzitegiak adierazi zuen bezala, gidalerro horiek plangintza ekologikoaren maila gorena dira materialki, piramide-egitura baten erpinak, eta, beraz, autonomia-erkidegoek onartutako planak haien mende jarri behar dira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a287a4d8d9657aeea0a8778d75e36f0d/20250529>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2301/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 563/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien

Auzitegi Gorenak berretsi egiten du jurisprudentzia-doktrina hau: ezinezkoa da Zergen Ikuskaritzak sozietateak formalki aitortutako jardueren berri ez izatea eta lortutako errentak bazkide nagusi eta administratzaile bakarrari egozte, jarduera ekonomikoen etekin handienekotzat joz, kalifikazio-ahalak ezin direlako trukatu; izan ere, hori gertatzen denean, Zerga Administrazioak gehiegi erabiltzen ditu kalifikazio-ahalak. Zerga Administrazioak, erregularizazio bat dela-eta ahal horietakoren bat erabiltzen duenean, argi eta zehatz identifikatu behar du zer lege-aurreikuspenetan oinarritzen den, eta birkalifikazioa justifikatu, argi eta zehatz azalduta non eta nola gertatu den zergadunaren praktika antijuridiko hori, birkalifikatzea merezi duena. Halaber, haren irismen fiskala finkatu behar du.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b824ce3dae6ceb14a0a8778d75e36f0d/20250530>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2304/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 569/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egiten du jurisprudentzia-doktrina hau: Administrazioak ibilgailu baten gordailuzain profesionalari ordaindu beharreko ordainsaria —gordailu hori zigor-prozedura baten barruan erabaki denean, kostuak irmo tasatuta eta kondenatuaren kaudimengabezia deklaratu denean— tasazioan finkatutako zenbatekoa da, arauz hala ezartzen baita, nahiz eta Administrazioa zigor-prozeduran parte izan ez, eta zenbatekoa finkatzeko ezin da aplikatu administrazio demandatuak argitaratu ez duen eta hirugarrenetikiko ondorioz ez daukan instrukzio bat.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/dc6b34aa73e79196a0a8778d75e36f0d/20250530>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2554/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 566/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien

Auzitegi Gorenaren bat dator Hezkuntza Sailaren jarduerarik ezaren aurka jarritako errekurtsioa ezetsi zuen epaiarekin. Errekurtsioan esatenenez, sail horrek ez zuen ezer egin eskola elkartuetako jantokietan abuztuan emandako zerbitzuei zegozkien zenbatekoak eta diferentziak ordaintzeko sinatutako akordioa betetzeko. Salak balioetsi du ekintza 2013an preskribatu zela, ez 2015ean; izan ere, elkarte batek hasitako ekintzak bazkideekiko preskripzio-epea baino ez du eteten, haien interes profesionalak eta ekonomikoak ordezkatzeko baititu. Ondorioz, jarduketak jatorrizko auzitegiaren eramatea agintzen da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f49d6e261f0ee893a0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2308/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 578/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 19koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du udal bateko zuzendaritzako langileek ez dutela eskubiderik toki-korporazio horri bere defentsa prozesuetatik eratorritako gastuak eskatzeko, entitate horretako udal-enpresa bateko kontseilari gisa egindako jarduketengatik jarraitutako kausa batengatik, nahiz eta haren zuzendari-kargua izan udalaren ordezkari gisa kontseilari hautatua izateko arrazoia; izan ere, ez gaude errekurtsogileak administrazio-ahalak eta administrazio-zuzenbideari lotutakoak erabiltzean egindako egintzen ondorioen aurrean, merkataritza-sozietate bateko kontseilari-kargua erabiltzetik eratorritako jarduketan aurrean baizik; beraz, egintza horiek zuzenbide pribatuaren mende daude. Beste kontu bat da toki-erakunde horrek, sozietate horren akziodun nagusi gisa, administratzaileen egintzen ondorioak jasan ahal izatea, baina ezin ditugu nahastu ikuspegi juridikotik bi egoerek planteatzen dituzten maila desberdinak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/95b5506eb2066a89a0a8778d75e36f0d/20250530>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2311/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 582/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 19koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egiten du jurisprudentzia-doktrina hau: izangaien anonimotasuna bermatzeko betebeharra, dituzten ezaugarriengatik hala ahalbidetzen duten probetan, funtzio publikora sartzea arautzen duten konstituzio-printzipioekin bat dator, eta, beraz, ez da beharrezkoa hautaketa-prozesuko deialdiaren oinarrietan aurreikuspen hori berariaz ezartzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/788572d5ed885b4da0a8778d75e36f0d/20250530>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2161/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 594/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 20koa. Administrazioarekiko Auzien

Auzitegi Gorenak, merkataritza-administratzaileei aplika dakiekeen erantzukizun subsidiarioaren araubidearen zehapen-izaera berretsi ondoren, horiei aplikatu beharreko bermeak adierazten ditu. Lehenik eta behin, administratzailearen erantzukizun objektiboaren debekua (erantzukizun subsidiarioak pertsona juridikoaren administratzaile-izaerari soilik erantzungo balio, erantzukizun hori gertatuko bailitzateke), errugabetasun-presuntzioaren printzipioa urratuko litzatekeelako. Zehapena denez, edozein zehapenetan bezala egiaztatu behar da zehatuaren jokabidean errua dagoela. Frogatu beharraren kargaren inbertsiorik eza da bigarren bermea, errugabetasun-presuntziorako eskubideak debekatzen duelako. Administratzaileari ez dagokio erruduntasunik ez dagoela frogatzea; aitzitik, Administrazioari dagokio erruduntasun hori egiaztatzea, administratzaileak ez duelako ardurarik zordun nagusiaren zerga-betebeharrak betetzean. Are gehiago, eremu horretan sor daitezkeen zalantzak zehapen-gaiaren bereizgarri den in dubio pro reo printzipioa aplikatuz argitu beharko dira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/88d4d0edb4eccccba0a8778d75e36f0d/20250527>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2302/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 583/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 20koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, lanaldi murriztua edo lanaldi partziala duten enplegatu publikoek eskubidea dute edoskitzeagatiko ordubeteko absentzia-baimena hartzeko, eta denbora hori ezin da proportzionalki murriztu benetan egindako lanaldiaren arabera, eta ez da diskriminatzailea baimen hori metatutako egunen bidez baliatzeko aukera langile publiko guztientzat komuna den terminoetan erabakitzea; izan ere, Zuzenbidearekin bat dator enplegu publikoaren kudeaketan Administrazio bereko enplegatu publiko guztientzat iraupen komuna ezartzea, denbora partzialeko langile publikoei ez dakien eman lanaldi osoko langileei (haien lanaldia hartzen da erreferentziazat) ematen zaiena baino tratu okerragoa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c98e13569b8e8ba5a0a8778d75e36f0d/20250530>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2405/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 584/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 20koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazi duenez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen estatu-araudiak estaldura ematen die barrutiko udal-merkatuak irekitzeko ordutegia aldatzeko neurriei, kontuan hartuta ez zela udal-ordenantza baten aldaketa arrunta izan,

ezinbesteko premia-arrazoiak zeudela tartean eta herritarrei elikagaiak hornitu eta banatzeko helburuaren eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoan onartutako eta aurkaratutako udal-ordutegiaren aldaketaren artean egokitzapena eta proportzionaltasuna zeudela.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/29cf5723ef27e76ba0a8778d75e36f0d/20250606>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2303/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 597/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 21ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egiten du jurisprudentzia-doktrina hau: prozedura-araudiak erabiltzen duen "behar bezala egiaztatutako jakinarazpen-saiakera" tartekian aipatzen den jakinarazteko betebeharra betetzat jo behar da, baldin eta jakinarazpena egiteko lehengo eta bigarren saiakerak aurreikusitako moduan egiten badira eta interesdunaren helbidean paperezko jakinarazpenak egiten badira. Bestetik, administrazio-prozedura legeak esleitzen dion gehieneko epearen barruan amaitutzat jo behar da, jakinarazpen-saiakera epe horren barruan egiten bada, nahiz eta azkenean huts egin, eta, betiere, espedientearen jasota geratu bada.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f6e69362c601d66ca0a8778d75e36f0d/20250530>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2410/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 602/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 21ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du zergadunak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga gisa egindako autolikidazioak, baldin eta horien zuzenketa 2021ko urriaren 26tik aurrera eskatzen bada (data horretan eman zen Konstituzio Auzitegiaren 182/2021 epaia) baina 2021eko azaroaren 25a baino lehen (egun horretan argitaratu zen BOEn), egoera finkatutzat jotzen direla eta egoera horiek ezin direla berrikusi aipatutako epaian soilik oinarrituta, autolikidazioa zuzentzeko eskaera aurkeztuta, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak berretsi egiten baitu hori.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b12d31998e6e9147a0a8778d75e36f0d/20250606>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2250/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 607/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egiten du jurisprudentzia-doktrina hau: dirulaguntza gisa ordaindu beharreko zenbateko bat lege zehazten den kasuetan, dirulaguntzaren onuradunaren aldeko berandutze-interesak ordaintzeko eskakizuna, kasu zehatz honetan, arauz ezarritako betebeharra lege aitortzen den unetik sortzen da, salbu eta alde zuzenetik ekintza bat gauzatu bada Administrazioaren jarduerarik ezaren aurrean eta administrazio

horrek ez badu betearazpen-egintzen bidez ezartzen legez ezarritako dirulaguntza emateko betebeharra.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/172542336ee848b2a0a8778d75e36f0d/20250529>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2306/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 613/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak deklaritzen du Laneko Arriskuen Prebentzioko Eskala Teknikoan —azterketa orokorreko espezialitatea, A2 azpitaldea— deialdi irekiko sistema orokorraren bidez sartzeko ez dela beharrezkoa Laneko Arriskuen Prebentzioko Masterra edukitzea, titulazio hori ez baita lege-arauan eskatzen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/cace172ca3c07801a0a8778d75e36f0d/20250530>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2325/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 610/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren arabera, Kode Zibilaren 1.851. artikulua ez zaie aplikatuko dirulaguntza baten onuradunari ezarritako betekizunak betetzeko epe-luzapenei, dirulaguntzei buruzko Estatuko araudian bertan berariazko erregulazioa baitago. Araudi horrek emakida-ebazpenaren aldaketa eta bermeen araubidea aurreikusten ditu, eta luzapenak berme-emaleari edo fidatzaileari entzun ondoren eman beharko direla xedatzen. Halaber, betebeharrak nagusiaren baldintzak aldatzeak fidantza iraungitzen ez badu ere, fidantza onartu ez duen fidatzaileari betetzea baino ez zaio eskatuko, hasieran hitzartutako baldintzetan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6850403ea92d7e2da0a8778d75e36f0d/20250602>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2417/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 606/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, deialdiko oinarriek aukera ematen badute lehen zikloko ikasketak —lizentzia, ingeniari-tza edo arkitektura baten ikasketa-planaren bigarren ziklora sartu aurreko urratsa direnak— modu independentean baloratzeko, nahikoa izango da bigarren zikloko titulazioa aurkeztea lehen zikloa gaingitu izana frogatzeko, eta, bigarren ziklo horretara lizentzia, ingeniari-tza edo arkitekturaren lehen zikloa gaingitzeaz bestelako bideetatik sar badaiteke, merezimendu akademiko gisa aipatuta, lehen ziklo horretako ikasketak gaingitu izanaren ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da, bigarren ziklora sartzeko lehen ziklotik ez beste bide batzuk egon baitaitezke, hau da, bigarren ziklokoekin jarraipen zuzena ez duten beste ikasketa batzuk.

Hala ere, kasu hartako inguruabarrak kontuan hartuta, lehen zikloko ikasketak egiaztatzeko, komeni da Ingeles Filologiako lizentziadunaren titulazioa aurkezteko eskatzea, bigarren ziklora sartzeko lehen zikloko ikasketak egitea eskatzen zuten ikasketa-planetan, eta, halaber, komeni da lehen zikloan lortutakoaren kalifikazioak jasotzen dituen ziurtagiri akademikoa administrazio-espedientean jasotzeko eskatzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f6c1019bc1227c0ea0a8778d75e36f0d/20250606>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2419/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 615/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrinatzat jotzen du "in itinere" istripu baten ondoriozko patologia psikologikoak, istripu horretan jasandako lesio fisikoen erreaktiboak direnak, istripu horren ondorioztat hartu behar direla, non eta beste faktore batzuen interferentziak ez duen ahalbidetzen kausazko loturaren haustura argi eta nabarmen hautematea. Patologia psikiko horiek interesdunaren ezintasun iraunkorra eragiten badute, arrazoi nahikoa izango dira arauetan aurreikusitako erretiroko edo jubilazioko aparteko pentsioa emateko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a7741e657536ed3ba0a8778d75e36f0d/20250606>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2423/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 617/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du Galiziako toki-erakundeetako zuzendaritzako langileak hautatu eta izendatzeko, zehazki, Ourenseko Udaleko giza baliabideen zuzendari nagusiaren lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean jasotako araudia aplikatuko dela; izan ere, interpretazio sistematiko eta teleologiko batetik abiatuta, arau horretan jasotako oinarrizko erregulazioaren aurreikuspenak aplikatu behar dira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/61f287580d0b7cd6a0a8778d75e36f0d/20250606>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2437/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 614/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, ezinezkoa da bitarteko funtzionarioak izendatzea aldi baterako programa bat garatzeko, baldin eta sortutako funtzionario-kidegoek jasotzen ez dituzten eginkizun jakin batzuk behar badituzte; izan ere, ezin da onartu lehendik dagoen funtzionario-kidego baten berezko eginkizunen barruan (hala nola kudeaketarenean) berariazko lanbide-profil bat bilatzea, aipatutako funtzionario-kidegoaren berezko zereginetatik kanpo dauden merezimendu jakin batzuen arabera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3fb2fb7d65545a3da0a8778d75e36f0d/20250609>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2530/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 626/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 26koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak doktrina gisa ezartzen du administrazio publikoek egiten dituzten administrazio arteko hitzarmenak ezin direla ofizioz berrikusi 39/2015 Legearen 106. artikuluan araututako prozeduraren bidez; beraz, hitzarmen horietan deuseztasun-akatsen bat dagoela ikusten bada, deuseztasun-deklarazioa ebazpen judizial baten bidez egin beharko da, ezarrita dagoen bezala.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7732f2343bc6b2aea0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2435/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 643/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 27koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi du administrazio publikoen arteko lankidetzeta-betebeharra gauzatzean administrazio batek Zerga Administrazioko Estatu Agentziari zerga-datuak lagatzea eskatzen dionean, lagapen horrek zerga-helburu garbia duela. Beraz, zerga-datu horiek zerga-jarduerarekin zerikusirik ez duen edozein administrazio-jarduketarako erabiltzen badira eta hori aurreikusten duen lege-araurik ez badago, interesdunaren alde aurreko baimena beharko da. Beraz, lagatako zerga-datu batzuetan oinarrituta idatzitako egintza zuzenbidearekin bat etorriko da, baldin eta lagapenak Estatuko zerga-araudian jasotako arauak errespetatzen baditu, datuak babesteko araubide orokorraren printzipioak zehazten baitira. Bada, legegilea izaera erreserbatua eman nahi die Zerga Administrazioak egiten edo eskatzen dituen datuei, eta, hortaz, aipatzen dituen eta berezkoak dituen zerga-helburuetarako baino ezin ditu erabili. Horrenbestez, arau orokor gisa, arau bidez zerrendatzen diren interes publikoko kasu tasatuetan izan ezik, zentzuzkoa da datuon lagapena debekatzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9d5b208a9f3a0d85a0a8778d75e36f0d/20250606>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2512/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 650/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrinatzat jotzen du beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuetan egindako denbora kontuan hartu behar dela gradu pertsonala finkatzeko orduan, noiz eta interesduna bere jatorrizko administrazioan zerbitzu aktibora itzultzen denean, eta, aitorpen hori egiteko, ez da beharrezkoa inplikaturako administrazioen artean elkarrekiko hitzarmenik edo akordiorik egotea gradu pertsonal finkatuak aitortzeko, hala ezartzen baita araudian.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/df6902592e6ef0c1a0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2527/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 647/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi du arauz jasotzen den baimena interpretatu egin behar dela adingabe jaioberrien diskriminazioa saihesteko, Konstituzioak onartutako interes gorenari (jaioberriena) kontuan hartuta, ama biologikoaren baimenari (16 aste) aitatasunerako aurreikusitakoa (10 aste) gaineratzeko zentzuan, lehen 6 asteak kanpo utzita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e20d0c5b31ddb1ffa0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2495/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 644/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egiten du hirigintza-plangintzako tresna baten erabateko deuseztasuna zehazteko aukerari buruzko jurisprudentzia-doktrina, deuseztasun-akatsak (deuseztasun partzialak) eragindako zehaztapen zehatzei dagokienez; izan ere, ez dago hura aldatzeko arrazoirik. Eta, bideraezintasun tekniko dela-eta, goi-tentsioko linea baten lurperatzea kabailoi edo mendi artifizial handi batekin ordezkatzeko eta hemen aztertutako ezaugarriak aldatzea, korridore elektrikoaren ikus-inpaktua murrizteko helburuarekin, funtsezko aldaketa da ingurumen-ondorioetarako, ingurumen-ebaluazio estrategiko espezifiko behar duena. Bada, egindako ingurumen-ebaluazioek ez dute eskakizun hori betetzen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/617f39d44a03208ba0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2496/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 648/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak autonomia-erkidegoei ematen dien lege-gaikuntzak ez duela aukerarik ematen autonomia-erkidego batek hirigintza-diziplinaren arloan zehapen-ahala erabiltzeko, arau horretan ez baitago berariaz aitortuta autonomia-erkidegoaren zehapen-ahalmen hori.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1c661f6839a13997a0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2611/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 649/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi du izapide-egintza bat edo izapide-egintza kualifikatu bat kontuan hartzeak ez daukala erantzun bakarra, kasu guztietarako baliozkoa: erantzuna kasu bakoitzean zehaztu behar da, inguruabarren azterketa partikularizatuaren bidez, bereziki haren xedeari eta hedadurari buruzkoak, erabakitzeak ea egintza horrek aplikatzekoa den araudian deskribatutako ondorioetako bat eragin dezakeen, izapide-egintza gisa kalifikatzen duena eta prozeduraren ebazpen-egintzatik bereizita eta modu autonomoan aurkaratzeko aukera ematen duena. Horri dagokionez, Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako ebazpenak, non erakunde errekurtsogileari eskatzen baitzaio kenkariak hobari gisa bidegabe aplikatzeari dagokion zenbateko jakin bat sartzeko, ezaugarriak biltzen ditu, eta izapide-egintza kualifikatuaren kategorian sartu behar da, modu independente eta autonomoan aurkaratu daitekeena, prozesuan aurreikusitako eskakizunak betetzen baititu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/73d95e1a5a8db119a0a8778d75e36f0d/20250619>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2972/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 646/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du Aurrekontuen Lege Orokorrean arauz aurreikusitako preskripzio-epea (Estatuko Ogasun Publikoak justifikazio-dokumentuak aurkeztean eskatu ez den betebeharrak oro aitortzeko edo likidatzeko eskubideari buruzkoa) aplikatu behar dela zerbitzu publikoak emateko emakida-kontratu administratiboetatik eratorritako betebeharrak betetzea eskatzea dakarten ekintzak gauzatzeko, kontratu-harremanaren izaera administratiboa kontuan hartuta.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a580f1540db04114a0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2972/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 658/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 29koa. Administrazioarekiko Auzien

Auzitegi Gorenak berretsi du hautaketa-prozesuetan irizpidekotasun teknikoa kontrolatzeko arrazoen edukiaren ondorioetarako, oinarrietan ariketa baten kalifikazioan hautaketa-epaimahaikide bakoitzaren puntuazioa banakatuko dela aurreikusten denean, banakako puntuazio hori islatzen duten dokumentuak gorde beharko dira, edo, gutxienez, informazio hori hautaketa-prozesuaren amaierako aktan sartu beharko da; izan ere, ezinezkoa da aho batez hartutako erabakiak motibazio-eskakizunak beteko dituela onartzea: aktetan eta ebazpenetan egoki islatzeak bermatzen dio parte-hartzaileari bere ariketa edo proba deialdiaren eskakizunen arabera baloratu dela, deialdian ezarritako parametroen barruan, eta hori berdintasun-baldintzetan gertatu dela. Datu horiekin aukera ematen zaio balorazio-organoaren erabakia modu arrazoituan zalantzan jartzeko, horrek bere eskubideari kalte egin diola uste badu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c24ecea6febd3256a0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2551/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 659/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 29koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du karrera profesionala aitortzea eskatzen denean aitortza horren xede den kategoriako talde/azpitalde profesionalen emandako zerbitzu-denbora kontuan hartuta egingo dela; izan ere, lanbide-kategoriak hartzen ditu barruan karrera profesionala aitortzeko egiaztatu behar diren ezagutzeekin eta esperientziarekin lotzen diren funtzioak, kualifikazioa eta gaitasunak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8e22b70a5eb6f9eda0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2499/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 668/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 30ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak doktrina jurisprudenzial hau berretsi du: arauen atzeraezintasunaren printzipioari dagokionez, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorren Legeak 70/1978 Legearen 2. artikuluari egindako erreforma baino lehen lan-kontratudun gisa emandako zerbitzuak aitortzeko eskatu zuten eta aitortu zizkieten funtzionarioek, finkatuta daudenez, lan-kontratudun gisa hobetzeko garaian zuten zenbatekoa eskatu eta jaso ahal izango dute. Horrelako eskaeretan, Aurrekontuen Lege Orokorrek ezarritako preskripzio-epea dago indarrean, auzia ez baita lan-harreman batean sortzen: dagoeneko iraungita dagoen lan-harreman batean sortu da, baina lan-harreman horrek eragina dauka berori iraungi ondoren sortutako funtzionario-harremanean. Horrela, bada, funtzionario-estatutuaren alderdi zehatz bati buruzkoa da eztabaida, hau da, funtzionario-izaera lortu aurretik emandako zerbitzuak aitortzeko eskubidearen irismenari buruzkoa,

eta hori guztia 70/1978 Legearen 2. artikulua onoreetarako, araua funtzionario-ordenamenduaren iturri-sistemaren parte baita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c819e3774d94f177a0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2537/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 673/2025 epaia, 2025eko ekainaren 2koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du uraren erabilera-tarifa obraren zuzeneko onuradunei bakarrik eska dakiekeela, Uren Legeak horri buruz egiten duen berariazko omisioagatik, kanonari buruz ari dela ez bezala.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/20933a09f7df2f04a0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2509/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 674/2025 epaia, 2025eko ekainaren 2koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du udalaren jarduerarik ezagatiko kalte-ordaina, intimitaterako, osotasun fisiko eta moralerako eta bizilekuaren bortxaezintasunerako oinarritzko eskubidea urratzeari dagokionez, non kontuan hartzen baita antzeko ezaugarriak dituzten etxebizitzek alokairuaren merkatuan daukaten prezioa, etxebizitzan bizi den pertsonaren edo pertsonen aldeko kalte-ordaintzat hartu behar dela, jabetza-ehunekoa kontuan hartu gabe, garrantzitsuena erabilera edo bizilekua baita, eta ez titulartasuna edo jabetza-kuota.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b2e693f216d31d73a0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2528/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 670/2025 epaia, 2025eko ekainaren 2koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: hirigintza-planak egitean egiten diren funtsezko prozedura-akatsak aurkaratutako plan osoaren erabateko deuseztasuna dakarte, eta ez dago hautemandako akatsa zuzentzeko aukerarik, planaren indarraldiari eutsi eta geroago zuzentzeko. Aurrekoa gorabehera, deuseztasun-deklaraziorako hautemandako akatsa planaren lurralde-eremu jakin bati edo zehaztaperen zehatzei egotzi ahal bazaie, lurralde-eremu horretako gainerako eremuetan garrantzirik izan gabe, zehaztaperen zehatz horiei dagokienez deklaratu daiteke planaren deuseztasuna, baina horrek ez du baimenik ematen prozeduraren atzeraeraginarekin konpon daitekeen erabateko deuseztasuna kontuan hartzeko. Ondorioz, arau orokorra planaren deuseztasuna deklaratzeko dela ikusita, kasu zehatz bakoitzari begiratu beharko zaio

hautemandako akatsa doktrinan eskatutako indibidualizazio-gradua dagoen zehazteko. Bestalde, txosten sektorial lotesleek planean ukitutako zehaztapenei ez zaie izaera adierazgarririk eman behar, eta ez da nahikoa zehaztapen horien sektoreko legeriara jotzea soilik, legeria horrek aurreikusten baitu txosten horiek nahitaezkoak eta lotesleak izatea, bai eta txostenok ez betetzeak zer ondorio dakartzan ere.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/44f2ea1fc3d186e0a0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2868/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 684/2025 epaia, 2025eko ekainaren 3koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa finkatu du partikular batek, hirigintza-hitzarmen batean lurzoruaren jabe gisa parte hartu badu hitzarmena bera sinatu den unean, ezin duela hura suntsiarazteko eskatu hitzarmen horren xedapenek aipatzen duten eremuan jada lurzoruaren jabe ez denean. Bestalde, titular berriak aurrekoarekiko dituen eskubide eta betebeharretan lege subrogatzearen printzipioak berekin dakar hitzarmen horren ondoriozko edozein eskubide galtzea (bereziki, hitzarmena suntsiaraztea eskatzeko eskubidea), kontrako erantzun batek ekarriko lukeen zentzugabekeria juridikoa azpimarratu baita; izan ere, lursailen eskualdatzaileak, eskualdatze horren ondorioz, galdu egiten du hitzarmenean alderdi-izaera, eta, horregatik, baita hitzarmena suntsiaraztea eskatzeko eskubidea ere, hitzarmenaren parte izaten jarraitzen dutenek baino ez baitute hori egin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6652f077381724f2a0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2531/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 706/2025 epaia, 2025eko ekainaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: ingurumen-ebaluazio estrategikoaren hasiera plangintza-tresnaren zirriborroaren atariko fasean kokatu behar da, eta hasiera hori ezin da planaren izapidetzearen ondorengo une batean gauzatu. Izan ere, ingurumen-ikuspegia planaren izapidetzearen ondorengo faseetan sartu behar da hasieratik, atariko fase horretatik aurrera: alternatibak ingurumen-ikuspegia kontuan hartuta aztertu behar direla ezartzen du araudiak, zirriborroaren atariko fasetik hasita, eta, horrela, indartu egiten da ebaluazio horren prebentzio-funtzioa (prebentzio-funtzioa ebaluazioaren oinarri den zuhertasun-printzipiotik ondorioztatzen da). Ingurumen-arrazoiengatik hirigintza-plan bat baliogabetzeko deklarazioaren ondorioz aurreko plan bat berriro indarrean jartzeagatik bakarrik, ezin da balioetsi erregresio-ezaren printzipioa urratu denik,

antolamendu-tresna bien aurreikuspenak ingurumen-ikuspegitik aztertu eta alderaketa materialik egin gabe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/423077e03e38ef51a0a8778d75e36f0d/20250616>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2590/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 704/2025 epaia, 2025eko ekainaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du funtzionarioak ez badio erantzuten informazio-eginbideetan deklaratzeko deiarri, edo parte hartzen badu, baina uko egiten badio informazio-eginbide horietan deklaratzeari, zigorra jar dakiokela desobedientziagatik, baina hori kasuaren inguruabarren arabera izango da; izan ere, ez da gauza bera diziplinazko irismena duten baloratu aurretik argitu behar diren egitate zalantza edo nahasiak ikertzea edo balizko erantzulea nor den ez jakitea eta egitateak argiak izatea eta balizko erantzule hori identifikatuta egotea eta deitua izatea. Kasu horretan, erantzukizuna norbere buruari ez egozteko eskubide konstituzionala presuntzio-prozedurara hedatzen da, eta baliteke informazio-eginbideak beharrezkoak ez direla balioestea, diziplina-espedientea hastea egokitzen delako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2431fda3dfbcefc0a8778d75e36f0d/20250619>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2750/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 688/2025 epaia, 2025eko ekainaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du mugikortasun murriztua duten pertsonentzat izendun aparkalekua erreserbatzeko eskubidea aplikagarria dela bai eskatutako aparkaleku-erreserba dagoen herrian bizi direnentzat, bai lanpostua bertan dutenentzat eta, errekurtsogilearen kasuan bezala, udalerrri mugakide batetik datozenentzat, aplikatzeko den araudiak berariaz aipatzen baitu "bizilekutik edo lanpostutik hurbil dagoen leku batean".

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8c7d7ac79f453416a0a8778d75e36f0d/20250625>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2761/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 707/2025 epaia, 2025eko ekainaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du udal bat legitimatuta dagoela beste udal mugakide edo aldameneko batek hirigintza-plangintzako tresna bati emandako onspenaren aurka egiteko, baldin eta aurkaratzen duen udalerrriaren eskumenen erabilerari edo interes orokorreari eragiten badie. Hala ere, udalek ez dute hirigintza-ekintza publikoa egikaritzeko legitimaziorik hirigintza-plangintzako tresna bat onartzearen aurrean;

izan ere, gure prozesu-legeak aitortzen du legitimazioa dagoela herri-akzioa egikaritzeko araudian berariaz jasotzen diren kasuetan, eta ez dago legerik tokiko lurralde-erakunde horiei hirigintza-arloko ekintza publikoa berariaz esleitzen dienik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bb673da01ca39bb3a0a8778d75e36f0d/20250625>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2596/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 710/2025 epaia, 2025eko ekainaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz, baimena ematen da, aplikatu beharreko zehapena arau-haustea eragin duen egitatearen larritasunera eta gainerako inguruabarretara behar bezala egokitzen dela justifikatzen denean, organo eskudunak lege ezarritako zehapena ezar dezan larritasun txikiagoko hurrengo arau-hausteetarako, eta behar bezala arrazoitu beharko du araudian aurreikusitako legezko kasuak betetzen direla.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/42941faf6b60823ea0a8778d75e36f0d/20250619>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2616/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 711/2025 epaia, 2025eko ekainaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, administrazioarteko mugikortasunaren bidez hainbat administrazioan lanpostuak jarraian esleitzuz gero, funtzionarioak funtzionario-kondizioa hartu zuen administrazioari dagokio jatorrizko administrazioaren kontzeptua, eta administrazio horrek eskumena du beste administrazio batzuetan zerbitzu emateko administrazio-egoera deklaratzeko; izan ere, jatorrizko administrazioaren kontzeptua ezinbestean lotuta dago funtzionarioari dagokion administrazioarekin, eta hori estatutu-harremanaren logika beraren ondorio da, non funtzionario-lotura legean aurreikusitako bideetatik eskuratu den administrazioarekin mantentzen baita. Bada, funtzionario-lotura hori ezin da borondatezko mugikortasunaren bidez berritu, lanpostuak betetzeko ondoz ondoko prozeduretan parte hartzeagatik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7d1b2aeecc7079764a0a8778d75e36f0d/20250619>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2615/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 708/2025 epaia, 2025eko ekainaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak interpretazio-irizpidetzat ezartzen du iraupenari buruzko xedapenik ez duten hirigintza-hitzarmenen iraupen-epaia autonomia-erkidegoko hirigintza-araudian zehaztutakoa dela, edo, hala badagokio, toki-erakundearen araudian zehaztutakoa; hitzarmen horietan halakorik jasotzen ez bada, ordea,

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean (urriaren 1eko 40/2015 Legean) ezarritako lau urtekoa izango da epea, Estatuko oinarritzko legeria den aldetik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0157aa41239fdd28a0a8778d75e36f0d/20250619>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 3745/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 715/2023 epaia, 2025eko ekainaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen duenez, toki-korporazio batek lanpostua Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario baten izendapen askearen bidez hornitu nahi duenean, izendapena egin aurretik 364/1995 Errege Dekretuak eskatzen duen aldeko txostena jaso beharko du, analogikoki aplikagarria baita kasu horretan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/357c1d518b12f02aa0a8778d75e36f0d/20250806>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2599/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 733/2025 epaia, 2025eko ekainaren 10koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, bidaiarien garraioaren emakidetan "gutxieneko pertzepzioa" ezar daiteke, nahi izanez gero, emakida arautzen duten pleguetan, baina, hala eginez gero, tarifa-araubidearen barruan egongo da, eta, ondorioz, tarifen urteko berrikuspen orokorra egin beharko da, arauz hala ezartzen baita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d9eb08cf80c80934a0a8778d75e36f0d/20250619>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2744/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 749/2025 epaia, 2025eko ekainaren 12koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrinatzat jotzen du instalazio elektriko fotovoltaiko bat proiektatzen den lursail batzuen errentamendu-kontratua indarrean egotea ez dela oztopo instalazioaren onura publikoa deklaratzeko, instalazio elektrikoek "ex lege" onura publikoa baitute. Bestalde, okupatu beharreko ondasun eta eskubideen banakako zerrendan ezin dira alokatutako lurak sartu,

errentamendu-kontratua titulu baliodun nahikoa delako norberak erabiltzeko, betiere erabilera hori kontratuan itunduta badago.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f6d0cda1033717aca0a8778d75e36f0d/20250625>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 3211/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 767/2025 epaia, 2025eko ekainaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, toki-erakundeak tokiko zerbitzu publiko baten zuzeneko kudeaketa bere gain hartzen duenean tokiko erakundeak berak edo tokiko erakunde autonomo batek kudeatzeko modalitatearen bidez, aldeztu aurretik baloratu behar dira aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen ondoriozko helburuak zorrotz betetzearen ondorioak, eta, toki-erakundeak tokiko zerbitzu publikoaren zuzeneko kudeaketa bere gain hartzen duenean tokiko enpresa-erakunde publiko baten bidez edo titulartasun publikoko kapital soziala duen tokiko merkataritza-sozietate baten bidez, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko justifikazio indartua eska dakioke, toki-ogasunerako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/da1cfc9e7086ce0fa0a8778d75e36f0d/20250717>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2749/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 773/2025 epaia, 2025eko ekainaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak deuseztatu egin du diputazio probintzialaren erabaki bat, prozeduran atzera egiteari buruzkoa, eta diputazioko zenbait lanpostu betetzeko berariazko lehiaketarekin jarraitzeko eskubidea aitortu dio auzi-jartzaileari, deialdiko oinarrien arabera onartu baitzen. Salak uste du administrazioak ezin duela atzera egin hautaketa-prozesuetan, baldin eta prozesuok arautzen dituen legeak berariaz jasotzen ez badu; halaber, uste du hautaketa-prozesu baterako onartutako izangaiek eskubidea dutela probak egiteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/48bf3cc6db559bcca0a8778d75e36f0d/20250625>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2682/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 771/2025 epaia, 2025eko ekainaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak Estatuko Administrazio Orokorrari agintzen dio B taldean sailka ditzala Herri Lan eta Hirigintzako, Aireko Armadako, Defentsa Ministerioko erakunde autonomoetako eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko erakunde autonomoetako delinatzaileen kidego bereziak.

Salak uste du lanpostu-zerrenda aldatu behar dela lanbide-kategoria bat aitortzeko, baina hori ezin dela oztopo izan kategoria hori aitortzeko; aitzitik, administrazio demandatuak prozedura horri jarraitu beharko dio epai hau betetzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f81e9ed6e229d9dba0a8778d75e36f0d/20250625>

- (Jurisprudenzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2746/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 770/2025 epaia, 2025eko ekainaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, toki-korporazio bateko kide bat legitimatuta dago parte hartzen duen toki-korporazioaren egintza edo erabaki baten ofiziozko berrikuspena sustatzeko, interesdun gisa, baldin eta erabaki horren aurka bozkatu badu edo ezin izan badu erabakian parte hartu. Hala ere, horrelako uzi bat onartzeko, beharrezkoa da arauak ezarritako gainerako betekizunak ere betetzea, eta egintza edo erabaki horren aurkako jurisdikzio-errekurtsorik ez jartzea, berez, ez da nahikoa eskaera ez onartzeko, fede txarra edo eskubide-abusua behar baita horretarako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8b694f37e12f6839a0a8778d75e36f0d/20250625>

- (Jurisprudenzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 3160/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 774/2025 epaia, 2025eko ekainaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten duenez, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak aplikatzearen ondorioz, "harreman osagarria" deritzon zerrendako izangaiek hasierako gaingintuetako batzuek uko eginez bakarrik eskuratu ahal izango dituzte lanpostu hutsak, baldin eta hasierako gaingintuei aurretik eskaini bazaizkie; izan ere, zerrenda osagarriaren helburua lanpostu hutsak gera daitezen eragoztekoa da, hau da, lanpostu guztiak beteko direla ziurtatzea. Oinarriek bat egin behar dute interpretazio horrekin. Beraz, arauaren arabera, lanpostuak hautatzean ezin da puntuazio-hurrenkera aldatu, puntuazio hobea izan zutenak bazter uzteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c608c2b7bf5964d6a0a8778d75e36f0d/20250710>

- (Jurisprudenzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2986/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 777/2025 epaia, 2025eko ekainaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, obra-kontratu bat egikaritzeko lanak eten edo geldiarazten badira kontratistari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik, nahiz eta kontratistak lanen hasieran jakin etendura hori gertatuko dela,

printzipioz eta kasu zehatz bakoitzean gerta daitezkeen inguruabarrak salbu, kontratistak benetan jasandako kalte-galeren ordaina jaso ahalko du, inola ere murriztu gabe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7fe2b58abbb48917a0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 3027/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 788/2025 epaia, 2025eko ekainaren 19koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten duenez, landazaindegi-zerbitzuaren konfigurazioak zera eskatzen du: arau erregulatzailerak zehatz-mehatz eta behar bezala mugatu behar du zerbitzu hori, eta, zerbitzua emateagatik tasa bat ezarri nahi izanez gero, beharrezkoa da zaintza bereziko zerbitzua izatea, zaintza orokorreko zerbitzutik bereizteko moduko ezaugarri bereizgarriak dituen, eta zerbitzuaren hartzaile diren finken titularrei bereziki mesede egitea. Landazaindegi-zerbitzua bateragarria da ehiza-zaindegi pribatuarekin, eta, beraz, finken jabeek ezar dazkieke, zerbitzuak udalerriko landa-finka guztiei zuzendutakoez bestelako prestazioak biltzen dituelako. Landazaindegi-zerbitzuak hartzaileen eskubide eta betebeharrak propio eta espezifikoak jasoko dituen estatutu bat behar du, eta eskubide eta betebeharrak horiek, gainerako auzokideekin alderatuta, onura berezi bat eman behar diete.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c9dd57630662b773a0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2946/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 801/2025 epaia, 2025eko ekainaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, telefono mugikor korporatiboaren bidez elikadura-segurtasuneko teknikari bat etengabe lokalizatzeko ez du, berez, eskubidea sortzen haborikin iraunkor eta aldizkakoa jasotzeko, non eta ez den egiaztatzen beste muga batzuekin batera datorrela, objektiboki nabarmen murrizten diotena zerbitzurik eskatzen ez zaion eta bere interesetarako erabil dezakeen denbora libreki administratzeko ahalmena.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1a9f90a4cea02d85a0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2956/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 802/2025 epaia, 2025eko ekainaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, barne-sustapen horizontaleko hautaketa-prozesu bat gainditu ondoren beste udal batean udaltzain-kondizioa lortzen duten udaltzainen administrazioarteko borondatezko mugikortasunak berezko araubide juridikoa du, eta araubide hori helmugako administrazioan sartzeko aukerarik ematen ez duen administrazioarteko borondatezko mugikortasunetik kanpo geratzen da.

Sarbidedun mugikortasunerako, funtzionario-kondizioa lortu behar da helmugako administrazioan, eta jatorrizkoan eszedentzia hartzea. Aztertutako kasuan, non udaltzain bat beste udal batera joan baita sustapen horizontala baliatuta, helmugako udalean agente-postuari esleitutakoa da dagokion gradu pertsonala, eta jatorrizko udalean agente-postuan arituta eskuratutako gradua ezin da baliozkotu, ezin delako berdintasun-eskubidera jo beste udalerrri bateko beste udaltzaingo-kidego batean agente gisa finkatutako gradua aitortzeko eskatu, hori ez baitator bat toki-autonomiaren printzipioarekin. Hain zuzen ere, desberdinkeriazko egoera sortzen du horrek funtzionarioen artean.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/222947968df3b6aea0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2961/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 793/2025 epaia, 2025eko ekainaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak deklaritzen du, atzeraeraginik ezaren printzipioaren arabera, aplikagarri den araudia erreformatu aurretik lan-kontratudun gisa emandako zerbitzuak eskatu eta onartu zitzaizkien funtzionarioek, finkatuta daudenez, lan-kontratudun langile gisa hobetzean zuten zenbatekoa eskatu eta jaso ahal izango dutela, eta hobetu ondorengo hirurtekoek, berri, karrerako funtzionario izanik sortu diren hirurtekoen araubide juridiko bera izango dutela, Estatuko funtzionario-araudiaren arabera aurrekontu-legeek onartutako akordioen mende jarritako hirurtekoa finkatzean zuten zenbatekoan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/db24c74a21e22e8ba0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 3205/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 799/2025 epaia, 2025eko ekainaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du bermeen kostua itzultzea eskatzeko eskubidearen preskripzioa zenbatzeko epea, administrazioak berme horiek ofizioz itzultzeko betebeharra betetzen ez duen kasuetan, administrazioak eratutako bermea itzultzen duen unetik hasiko dela zenbatzen, errekurritutako egintza deuseztatzearen irmotasuna bakarrik baita emandako bermea itzultzeko baldintza, zergapekoaren ohartarazpenik gabe edo agintaritza judizialaren esku-hartzerik gabe. Zerga Administrazioak berehalakoan itzuli behar du bermea,

nahitaez. Ez dago itzulketa atzeratzeko arrazoirik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2089d49bd0609dd5a0a8778d75e36f0d/20250717>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 3024/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 808/2025 epaia, 2025eko ekainaren 24koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egiten du jurisprudentzia-doktrina hau: bizitegi-erabilerako etxebizitzetan turismo-egonaldiak merkaturatzeko mugek interes orokorreko premiazko arazoietan justifikatuta egon behar dute, eta proportzionaltasun- eta beharrian-printzipioak errespetatu behar dituzte. Babes-plan bereziaren hirigintza-arauek, etxebizitza turistikoaren hirugarren sektoreko erabilera debekatzen dutenez, eta eremu eta azpiero berean, baldintza berberetan, hirugarren sektoreko beste erabilera batzuk, bulegoak eta hotelak baimentzen direnez, bat egiten dute interes orokorreko arazoi premiazkoen proportzionaltasun- eta premia-printzipioekin eta berdintasun-printzipioarekin, diskriminaziorik ezaren alderdian; izan ere, erabilera horiek beste azpiero batzuetan oso onartuta daude, eta horrek oreka ematen du planaren eraginpeko eremu osoan, beharrezkoa hori babes-helburua lortzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3129086eaacc44d2a0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 3177/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 814/2025 epaia, 2025eko ekainaren 24koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak interpretazio-irizpidetzat jotzen du, behin eskubideak murrizten dituen administrazio-ebazpen bat irmoa denean, hala nola hirigintza-legezkotasuna lehengoratzeko agindu bat, gero interesdunei jakinarazten zaizkien betearazpen-egintzen eta horien ondoriozko errekerimenduen aurrean, ezin dela zalantzan jarri jatorrizko egintza horren legezkotasuna, betearazpenaren beraren alderdiak baino ez, eta, beraz, hirigintza-legezkotasuna berrezartzeko prozedura batean emandako ebazpena irmoa izanik, ezin zaiola aurka egin prozedura horren preskripzioari eta/edo iraungitzeari, hura nahitaez betearaztea erabakitzen duen ebazpena aurkaratzen denean.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/789d8ea31377460da0a8778d75e36f0d/20250710>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2943/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 820/2025 epaia, 2025eko ekainaren 25ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten duenez, funtzionario batek, gaueko eta jaiegunetako txandetan lan egiten badu eta zerbitzu horiek lanaldi arruntaren ordutegiaren barruan ematen badira, urteko oporraldietan, aldi baterako ezintasunean, norberaren gauzetarako baimenetan eta ordaindutako gainerako baimenetan ordainsaria jasotzeko eskubidea du; izan ere, horrek dakarren nekagarritasun bereziak ordainsarietan eragiten baitu, ordainsari-kontzeptu espezifiko



gisa. Bada, ordainsari-kontzeptu hori onartzen bada, ordainsari arrunt eta erregularrean txertatzen da,

nahiz eta zerbitzu horiek urteko oporraldietan, aldi baterako ezintasunean, norberaren gauzetarako baimenetan eta ordaindutako gainerako baimenetan ematen ez diren. Beste gauza bat izango da zein kontzepturengatik ordaintzen diren edo zenbatekoa nola kuantifikatzen den. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen testu bateginean ez denez horri buruzko ezer aipatzen, tokiko funtzio publikoaren eremuan, aurreko kontzeptuengatik zor diren zenbatekoak erreklamatzeko eskubidearen preskripzio-epea lau urtekoa izango da, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra kontuan hartuta; izan ere, hori da administrazioekiko kredituen arau orokorra.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0f25eac87c38ff76a0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2948/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 834/2025 epaia, 2025eko ekainaren 25ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berresten duenez, osasun-zerbitzu publikoaren enpresa adjudikaziodun batentzat lan egindako denbora kontuan har daiteke- Publikoari emandako aurreko zerbitzuak aitortzeko; izan ere, kontuan hartzen dena erabiltzaileei emandako osasun-zerbitzuaren izaera publikoa da, eta ez erakunde kudeatzailearen izaera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e7a65446e5fe79a3a0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2950/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 832/2025 epaia, 2025eko ekainaren 25ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du txandakako erregimeneko udal-funtzionarioak eskubidea duela jaiegunengatiko eta gaueko lanagatiko ordainsaria jasotzeko oporraldietan, aldi baterako ezintasun-egoeretan, norberaren aukerako egunetan eta ordaindutako gainerako baimenetan, bai eta aparteko orduak edo gehiegizko lanaldiagatiko orduak jasotzekoa ere, azaldutako formularen arabera (5. OJ); horrek guztiak atzeraeraginezko ondorioak izango ditu hasierako eskaeraren aurreko lau urteetara arte.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5fa4ce6571d80e88a0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 2974/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 848/2025 epaia, 2025eko ekainaren 26koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, sailkapen-organoak, Administrazio Publikoekin aritzeko obra-kontratista gisa sailkatzeko, ekonomia- eta finantza-kaudimena baloratu behar du; sozietateen kasuan, beren ondare garbiaren zenbatekoan zehazten da, ezarritako erregelamenduzko irizpideen arabera eta Merkataritza Erregistroan onartutako eta aurkeztutako urteko kontuen balantzearekin bat.

Balorazio horretan, Administrazioak urteko kontuak ebaluatu eta aztertu behar ditu, eta, gainera, kontuan hartu behar ditu adostasun-txostenean jasotako emaitzak eta adierazpenak. Eskatutako sailkapena ukatu ahal izango da, baldin eta txosten horretan, arrazoizko moduan, sozietatearen ondare garbiaren kontabilitate-zenbatekoaren egiazkotasuna, osotasuna eta fidagarritasuna eta, ondorioz, sozietatearen ekonomia- eta finantza-kaudimena zalantzan jartzeko moduko inguruabarrak agertzen badira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/944928d43971f3e9a0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 3030/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 849/2025 epaia, 2025eko ekainaren 26koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezetsi egin du jarritako kasazioa, eta berretsi egin du ezin dela onartu zerbitzu publikoaren emakida-kontratuaren esleipen-ebazpenaren aurka jarritako kontratazio-arloko errekurtsio berezia. Izan ere, erakunde errekurtsogileak kafetegiko zerbitzu publikoaren emakida-kontratuaren lizitazio publikoan parte hartu zuen, kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbatekoa nahiz balio hori finkatzera eraman zuten elementuak ezagututa, hala jasotzen baitzen aurkaratu ez ziren kontratu-agirietan. Beraz, hasiera batean, balio hori irmo eta erasoezin geratu da, eta, bestalde, ez da hiru milioi euroetara iritsi, aurkeztutako errekurtsio berezia izapidetzeko onartu ahal izateko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1341d385058f345fa0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 3032/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 853/2025 epaia, 2025eko ekainaren 26koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean erregelamenduzko xedapenak onesteko prozedurarako jasotzen den araudia ez da hirigintza-antolamenduko tresnen onespenerako aplikatzen. Hala ere, berariazko igorpena ezar daiteke autonomia-erkidegoko araudian; izan ere, hirigintza-eremuan, sektoreko legediak, orain autonomia-erkidegoen eskumenekoa denak, gaia zehatz-mehatz arautzen duen araudi bat jasotzen du, eta, beraz, antolamendu-tresnak onartzeko, aldatzeko edo berrikusteko prozedura espezifiko bat arautzeak berekin dakar xedapen orokorrak onesteko araudi orokorra ez aplikatzea. Bestalde, autonomia-erkidegoko araudiak eska dezakeen dokumentazioak ez du besterik gabe genero-berdintasunaren printzipioarekiko errespetua erritu moduan edo formalean eskatzen;

aitzitik, planaren zehaztapenak emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioaren zeharkako printzipioarekiko errespetuaren, ebaluazioaren eta egokitzapen substantiboaren justifikazio nahikoa adieraztea eskatzen du, eta eska dakioke.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/198772e3d5992600a0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 3142/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 856/2025 epaia, 2025eko ekainaren 26koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egiten du jurisprudentzia-doktrina hau: metropoli-area batek ezin du, ondasun higiezinaren gaineko zergaren gaineko errenergua arautzen duen zerga-ordenantzaren bidez, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginean ezarritako gaikuntzaren arabera, errenergua horretan salbuespenik ezarri ondasun higiezinaren gaineko zergen subjektu pasibo jakin batzuentzat, hala nola landa-ondasun higiezinentzat, eta arrazoi berberengatik, metropoli-eremu batek ezin dio murrizketarik ezarri, ondasun higiezinaren gaineko zergaren errenergua arautzen duen zerga-ordenantzan, errenergua horren kuota osoari. Nolanahi ere, ez da bidezkoa ondasun mota jakin batzuk, hala nola ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak, murrizketa-sistema horretatik kanpo uztea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/499e44b08f1f45bba0a8778d75e36f0d/20250710>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Auzitegi Gorenaren 3500/2025 epaia) Auzitegi Gorenaren 857/2025 epaia, 2025eko ekainaren 27koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak berretsi egiten du jurisprudentzia-doktrina hau: tasaren funtsezko elementu bat (adibidez, karga-tasa), zerga-kuota kalkulatzeko beste magnitude batzuei aplikatzen zaiena, argi eta garbi zehaztu behar da ordenantzan bertan edo harekin batera argitaratutako eranskinetan, arauz hala ezartzen baita. Udal batek, tokiko autonomiaz baliatuz, % 1,5eko karga-tasa ezar dezake energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskalean, aprobetxamendu berezi arineko kasuetarako, eta % 3,5ekoa aprobetxamendu berezi biziko kasuetarako. Dena dela, onargarria da udal batek, tokiko autonomia erabiliz, energia elektrikoaren eta gasaren banaketara eta garraiora bideratutako instalazioek egindako aprobetxamenduak bakarrik zergapetzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/64fa9a74ebc77a1da0a8778d75e36f0d/20250710>

Justizia-auzitegi nagusiak

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1650/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 239/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 6koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak apelazioa ezetsi du; izan ere, barne-ordenamendu aplikagarriaren arabera, karrerako funtzionarioaren izaera juridikoa lortzeko, nahitaez, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan oinarritutako eta publizitate bidez iragarritako hautaketa-prozedura ireki batean parte hartu behar da. Hargatik, horrek ez du eragozten oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez bitarteko funtzionario gisa emandako zerbitzuak baloratzea. Bitartekotasun-harreman juridikoa karrerako funtzionarioen edo estatutu baliokidea duten langile finkoen berezko harreman bihurtzeko egindako uziek ez dute babesik interpretazio-printzipioan, barne-esparru juridikoa guztiz bateraezina baita horiekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7d1d9ca02de77003a0a8778d75e36f0d/20250624>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1676/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 238/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 6koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Errekurtsogileak, euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duen bitarteko funtzionarioa izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean enplegua finkatzeko prozesu berezi eta salbuespenekoetarako deialdiaren Agindua aurkaratu du, eta adierazi du baldintza berdinetan sartzeko oinarritzko eskubidea urratzen duela eskaintako lanpostu guztietan edo ia guztietan euskararen neurritz kanpoko ezagutza eskatzeagatik. Halaber, adierazi du Administrazioak ez duela justifikatu eskakizun hori benetan beharrezkoa denik eginkizunak betetzeko; zalantzan jarri du euskara merezimendu gisa baloratzea bera, eta deialdian botere-desbiderapena edo lege-iruzurra egin ote den iradoki.

Epaia berretsi egiten du EAEko funtzio publikoan hizkuntza-eskakizunak esleitzeko eta baloratzeko dagoen sistemaren baliozkotasuna, bai eta enplegua sendotzeko prozesuetan euskara jakitea eskakizun edo merezimendu gisa eskatzea konstituzionala eta proportzionala dela ere, lanpostu-zerrendetan eta indarreko araudi autonomikoan oinarritzen denean. Gaineratu du euskararen balorazioa gainerako merezimenduetatik bereizita egin daitekeela, berdintasun-baldintzetan sartzeko oinarritzko eskubidea urratu gabe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3cdb47a54a18163ba0a8778d75e36f0d/20250624>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1645/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 250/2025 epaia,**

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa; izan ere, kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarri, atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihesteko edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori murrizteko eta kontrolatzeko eginkizuna esleitzen zaio ingurumen-agintaritzari. Horrek ez du baztertzeko industria-jarduera horiek kontrolatzeko eta ikuskatzeko udal-ahalak kentzea, administrazio-legerian aurreikusitako gainerako helburuak ziurtatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a8a80b90d5e5c59da0a8778d75e36f0d/20250624>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1651/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 243/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 7koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du jarritako apelazioa, eta berretsi du ez dela bidezkoa lizentzia administrazio-isiltasun positiboaren bidez ematea; izan ere, administrazio-isiltasunaren bidez ez da lortuko hirigintza-legeriaren edo -plangintzaren aurkako lizentziarik, eta ez dago desadostasunik jardura garatu nahi den lurzorua hain zuzen ere zaborteziarena dela esatean; halaber, plangintzak ez du onartzen transkribatutako erabileraz besterik, eta, onartzen ez den erabilera horien artean, ez dago, argi eta garbi, apelatzaileak garatu nahi duena, gainerako guztien berariazko debekuarekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ed548338c44bb216a0a8778d75e36f0d/20250624>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1794/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 251/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 7koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du jarritako apelazioa, aplikatzekoa den arauak kategoria bakoitzera sartzeko barne-sustapenean oinarritutako sistema bat eratzen baitu, hau da, beheagoko hurrengo kategoriatik igotzeko hautaketa-prozesuaren bidez. Horixe da arauaren funtsa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2b6a20c4d143cc71a0a8778d75e36f0d/20250703>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1816/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 252/2025 epaia,**

Deialdiko lanpostuetarako 2. hizkuntza-eskakizuna eskatzea zuzenbidearekin bat datorrela jotzen da, eta ezetsi egiten da errekurtsogileak hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko araubide iragankorra aplikatzeko duen uzia, ez baitu egiaztatu salbuespen hori ahalbidetzen duten berariazko inguruabarrak betetzen dituenik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/86427ab6a7e92838a0a8778d75e36f0d/20250703>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1777/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 208/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 7koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa; izan ere, bitarteko langileak karrerako funtzionarioek osatutako epaimahaien bidez hautatzea eskatzen du arauak, eta ezin da sozietate mugatuaren esku utzi; erabateko deuseztasun-arrazoi gisa lege ezarritako prozedura erabat omititzea dakar horrek.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f957919af809d024a0a8778d75e36f0d/20250703>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1779/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 209/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 7koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta 2022rako lan-egutegia berretsi; izan ere, ezin denez ezbaian jarri lan-egutegia negoziatu egin behar dela eta aplikatu beharreko legediak ez duela ezartzen egutegia alde aurretik onartu behar denik, ezin da UDALHITZen akordioa argudiatu.

Illo horretan, negoziazioa egin da, eta udalak bere jarrera aldatu ere egin du. Hala, ezin zaio negoziatorik eskatu sindikatuen nahiak bete arte, haien jarrera beti gailentzea bezalakoa izango litzatekeelako hori; izan ere, horrela ez balitz, baliteke inoiz akordiorik ez lortzea eta giza baliabideak antolatzeke tresna garrantzitsurik (hala nola egutegia) ez onartzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3bcdcc982cc97b09a0a8778d75e36f0d/20250703>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1835/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 211/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 7koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Epaia berretsi egiten du hautaketa-prozesuetan zerbitzua eman zuen administrazioan oinarritutako merezimenduen eta diskriminazioaren balorazioan aldi baterako muga



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1816/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 252/2025 epaia,
arbitrarioak ezartzeko debekua, eta lanpostuak egonkortzeko ezohiko prozesuetara zabaltzen
du doktrina hori, prozesu horien helburua lanpostuak egonkortzea dela eta ez pertsonak
egonkortzea azpimarratzearekin batera,

izangai jakin batzuen aldeko emaitzak aurrez zehazten dituen edozein pribilegio baztertuz.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4fd9cad0358f3be9a0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1581/2025 epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 206/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du jarritako apelazioa, eta III. hizkuntza-eskakizunaren neurrigabeko eskakizuna eta balorazioa ezartzen dituen deialdiko oinarrien deuseztasuna deklaratu du, berdintasun-eskubidea eta enplegu publikora sartzeko merezimendu- eta gaitasun-printzipioak urratzeagatik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2acd0e6ad2963b24a0a8778d75e36f0d/20250609>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1790/2025 epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 207/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Partzialki baiesten da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, eta aitortzen Delta Seguridad SAK eskubidea daukala epaian aitortutako zenbatekoetatik eratorritako berandutze-interesak ordain dakizkion, bai eta errekurtsoa jarri zenetik sortutako interes horien gaineko interesak ere; ordainketa hori ukatu zuen administrazio-ebazpena baliogabetzen da.

Auzitegiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 216.4 artikulua aplikaezintasunean oinarritzen du bere erabakia, fakturak ez zituelako aurkeztu erreklamaturako zenbatekoekin, baina Kode Zibilararen 1.100 artikulua aplikazio osagarria onartzen du, betebeharra betetzean izandako atzerapenagatiko berandutze-interesak ordaintzeko; izan ere, administrazioak ordainketa atzeratu egin zuen ebazpen judizialaren ondoren, ebazpen horrek okerreko kontratu-interpretazioa zuzendu baitzuen; horrela, benetako babes judiziala eta segurtasun juridikoa bermatzen dira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9aa2a5abfa286adfa0a8778d75e36f0d/20250703>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1815/2025 epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 210/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa; izan ere, berdintasun-printzipioa baliatu ahal izateko, beharrezkoa litzateke apelatzaileek egiaztatzea EPEan deitutako lanpostuak dituzten pertsonen egoera berean daudela eta delako halakorik gertatu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4a8ddfa90dae2ba2a0a8778d75e36f0d/20250703>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1896/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 253/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 12koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta berretsi egiten du pertsona bat deitutako hautaketa-prozesutik kanpo uztea legez kontrakoa dela; izan ere, 72 orduko aurreikuspena, hurrengo ariketak egiteko gutxieneko aurrerapen gisa, denbora-epe baliadun dagokiola ulertu behar da, ez epe naturalari; beraz, kasu honetan, asteburuko, larunbateko eta igandeko elkarriketa egiteko deia egiten denetik eta zitazio-datatik, hau da, epeak egunetan eta ordutan zenbatzeko denbora baliogabetik, ez zen gutxieneko epea bete.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f11e2a54dafcb85ca0a8778d75e36f0d/20250708>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1903/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 229/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 13koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta aldi baterako langileak betetzen duen lanpostuari esleitutako hizkuntza-eskakizunaren aurkakotasunera mugatutako legitimazio aktiboa aitortzen du, baina errekurtsua ezetsi egiten da lanpostuen zerrendaren eta titulazio-baldintzen aurkaratzeari dagokionez, errekurtsogileak ezin baitu bere titulazioa (Turismoan diplomaduna) egokitu, bere esfera juridikoa zabaltzeko eta lanpostu gehiago lortu ahal izateko. Ildo horretan, ez da indargabetzen udalak egiten duen arrazionaltasun-judizioa zuzenbidearen aurkakoa, irrazionala edo neurritz kanpoko izatea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bfc07c9d80780db5a0a8778d75e36f0d/20250708>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1900/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 259/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 14koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du jarritako apelazioa, eta xedatzen epaia ez dela bete administrazio-prozedura haste hutsarekin. Hala, epaia betearazten jarraitu behar da, udalak egindako jarduketan berri eman eta prozedurari amaiera emango dion ebazpena eman dezan; izan ere, epaiaren betearazpena ekainaren 21eko 73/2023 Dekretuarekin (legezkotasuna berrezartzeko prozedurari hasiera ematea baino ez zuen erabakitzen) jada beteta dagoela defendatzen bada, 2024ko maiatzaren 31n nahitaezko betearazpena xedatzen zuen autoak berak ez luke inolako zentzurik izango, ezer ez bailitzateke betearaziko. Aitzitik, inola ere ezin da ulertu hirigintza-legezkotasuna berrezartzeko prozedura haste hutsarekin bete egiten dela epaia; izan ere, epaiak, epaitzan, ez du hain agindu soil jasotzen: epaitzan adierazitako irismena duten obra batzuk eraistea xedatzen du, eta, hain zuzen ere, agindu hori zein eduki materialetan



islatzen den zehaztea da hirigintza-legezketasuna berrezartzeko espediente horren barruan ebatzi behar dena.

Horretarako, jakina, espediente horri amaiera emango dion ebazpena ematea da lortu behar den lehenengo gauza, eta, hori emanda, epaia betearaztean ere ebatziko da, udalak hala erabakitakoa epaiarekin bat badator.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/78968eda4241c4d5a0a8778d75e36f0d/20250708>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2026/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 264/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 14koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du jarritako apelazioa, eta aitortzen demandatzaileak eskubidea duela gainerako izangaiekiko benetako berdintasun-baldintzetan baztertua izan zen hautaketa-prozesuan parte hartzeko eta jarraitzeko; izan ere, emakumeei neurritz kanpo eragiten dien gutxieneko garaieraren baldintza diskriminatzaileztat jotzen da, justifikazio objektiborik gabetzat, eta, kasu honetan ofizioz berrikusteko legezko mugarik ez dagoenez, ez dago justifikaziorik gutxieneko garaieraren betekizuna ezartzeko eta gizonentzat eta emakumeentzat garaiera zehatz bat ezartzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/912666470f1f2500a0a8778d75e36f0d/20250710>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2004/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 240/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 21ekoa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa; izan ere, baieztar litekeenez, autoetan jasotzen den egoera (dinamika zehatza lausoa duen erorikoa, kutxatila batek zapaltzean sortutako kulunka txiki baten ondoriozkoa) "bizitzaren arrisku orokorrean" sar daiteke, eta horrexek eragozten du lesioaren eta zerbitzu publikoaren funtzionamendu normal edo anormalaren arteko egozpen objektiboa egitea. Gertatutakoa ikusita, ezin da ikusi lesioa administrazioak sortutako arrisku garrantzitsuko esfera bati juridikoki egotz dakiokenik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d835caf46c4cb6f2a0a8778d75e36f0d/20250709>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1988/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 279/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 21ekoa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du jarritako apelazioa, eta deitutako hautaketa-prozesuaren bederatzigarren oinarriaren legezketasuna deklaritzen du, zerbitzu-eginkizunetan egindako lan profesionalaren balorazioa merezimendu baliozkoa eta diskriminaziorik gabea



baita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bd4e7196ecd27302a0a8778d75e36f0d/20250709>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2120/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 255/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 27koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Epaia argitzen duenez, osasun-arloko etengabeko prestakuntzaren kudeaketa arautzen duten barneko administrazio-ebazpenek ez dute erregelamendu-izaerarik, eta ez dute aurretiazko negoziatio kolektiborik behar, betiere prestakuntza-planak edo -funtsak aldatzen ez badituzte eta lan-eskubideak aldatzen ez badituzte. Horrela, osasun-administrazioaren antolamendu-ahalaren irismena eta negoziatio kolektiborako gordetako gaia mugatzen dira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b50901dce78b5195a0a8778d75e36f0d/20250715>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2140/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 253/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 27koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta berretsi errekurtsogileek udalaren sistema eragileetara eta biltegitratze-sistemetara sartu ezin izatea, administrazioaren jarduna justifikatutzat eta proportzionatutzat jotzen baitu; izan ere, sindikatuko liberatuek ez dute polizia-aplikazioetara, karpitetara eta postetara sartu beharrik, polizia-eginkizunen garapenari hertsiki eragiten baitiote, eta ezin dute beste sindikatu-esteka batzuetara sartu, kontuan hartuta zer atestatu altxatu diren, zer eginbide judizial egiten diren, zer eragiketa baimentzen edo deitzen diren edo zer txosten zehatz bideratzen diren poliziaren jardunari dagozkion jarduketak direla. Halaber, ez da frogatu ezarritako mugekin ez dagoela aukerarik informazio osoena jasotzeko, ez eta entitateko langileei eragiten dieten gaiei buruz ikertzeko eta informatzeko ere. Askatasun sindikalaren babesean ezin da lortu polizia-eginkizuna zorrotz erabiltzeko beharrezkoak diren datuak eta aplikazioak eskuratzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5d4330c22b3b4f9aa0a8778d75e36f0d/20250715>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2146/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 298/2025 epaia, 2025eko ekainaren 3koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du aurkeztutako apelazioa, udal demandatuak egiteko bidean egindako jarduketa materialari dagokionez. Zuzenbidearekin bat ez zetorrela adierazi du, eta bertan behera uzteko agindu, lurra okupazioaren aurretik zeuden egoerara itzul daitezen. Izan ere, obrak egin ziren arrapala jabeen erkidegoaren titulartasunekoa zen, eta egiaztatu egin zen udalak okupatu zuela, alde aurretik inolako izapiderik egin gabe; argi dago egitatezko bidean jardun zuela.

Epaia nabarmentzen duenez, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak eskumena du egitatezko bidea osatzen duten administrazio-jarduketa materialez arduratzeko, baita okupatutako lursailaren titulartasun pribatua ezbaian dagoenean ere; gai hori epaiketaren aurretik ebatzi ahal izango da.

Gainera, proiektu publikoetan lurak okupatzeko titulartasun pribatua eta alde aurreko legeko prozedurak errespetatzeko beharra azpimarratzen du, desjabetze-espediterik gabeko lege kanpoko okupazioen aurka babesteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/204c0325cdb148f2a0a8778d75e36f0d/20250715>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2293/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 299/2025 epaia, 2025eko ekainaren 4koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du jarritako apelazioa, hirigintzako jarduketa-programa ez baitago ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende, hirigintza-exekuzioko tresna bat delako, ez hirigintza-antolamenduko plan bat; beraz, ez dator bat ebaluazio hori egin behar zaien planekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/602bd0dc76147fa6a0a8778d75e36f0d/20250729>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2277/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 239/2025 epaia, 2025eko ekainaren 9koa.
Administrazioarekiko Auzien Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du jarritako apelazioa, eta ukatu borondatezko erretiro aurreratuagatik eta karrerako funtzionario izateari uko egiteko pizgarriagatik primak ordaintzea; izan ere, Auzitegi Gorenak ebatzi du orain aztertutako akordioan aitortutako kalte-ordainen modukoak zuzenbidearen aurkakoak direla eta ez dutela lekuri gure sisteman. Ordainsari-izaera hori balute, ordainsari horiek jasotzea ez litzateke bat etorriko funtzionario-harremanaren estatutu-izaerarekin eta ez-konbentzionalarekin edo itunduarekin, eta horrek esan nahi du funtzionario publikoaren ordainsari-egitura lege-arau batek zehazten duela, eta ezin dela hitzarmenen bidez, administrazio-ebazpenen bidez edo oinarritzko araudiaren aurkako xedapenen bidez berritu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e4ef08eb5471c453a0a8778d75e36f0d/20250729>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2307/2025 epaia)
EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 245/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 9koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta baieztatzen du ez dela bidezkoa aldi baterako harremana karrerako funtzionarioen erlazio finko berbera edo



parekagarria bihurtzea; izan ere, lehenik eta behin, ez da isiltasun positiborik gertatzen, ezin baita interpretatu interesdunek egiten duten eta administrazioaren berariazko erantzunik jasotzen ez duen eskaera orok, isiltasuna aplikatuta, subjektu bat, hautaketa-prozesurik gainditu gabe, funtzionario publiko bihurtzea

ekar dezakeenik (5. OJ). Gainera, denboran luzatutako bitarteko kontratu guztiak ez dira aldi baterako kontratazioak gehiegikeriaz erabiltzearen baliokide. Horrela, hori gertatu dela ondoriozta dadin, beharrezkoa da egiaztatzea bitarteko funtzionarioa egitura-lanak egiteko erabili zela eta horretarako lanpostu bat sortu behar zela. Beraz, izendapenak eta kargu-uzteak gertatu ziren inguruabarrak frogatzea eskatzen da, eta, aztertzen ari garen kasuan, ez dakigu horrelakorik egin den. Nolanahi ere, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera, abusu hori dagoela ikusten bada ere, horren aurreko konponbidea ezin da izan apelatzaileek nahi duten hori, gure sistema juridikoan ez baitago horretarako lekurik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3c88fa3d7248fa33a0a8778d75e36f0d/20250729>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2299/2025 epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 247/2025 epaia, 2025eko ekainaren 10ekoa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta berretsi egin du amaren fitxaketa-txartela (baja medikoan zegoen) lan-ordutegia erregistratzeko erabiltzeagatik ezarritako zehapenaren deuseztapena; izan ere, ordutegia kontrolatzeko sistemak saihesteko edo ordutegiaren urraketak detektatzea eragozteko egiten diren jokabideak zigortzen dira. Beraz, subjektu batek hutsegite hori egin duela ulertu ahal izateko, bere jokabidea helburu zehatz horretara bideratuta egon behar zen. Ez da nahikoa, beraz, fitxaketa-sistemak gaizki edo zabarkeriaz erabiltzea, zigortu behar dena ez baita hori, ordutegi-kontrolatik ihes egitea baizik. Hala ere, ontzat eman zen arrazoia: fitxaketa-makinak, akats baten ondorioz, interesdunaren amaren txartela antzeman zuen, eta, horren ondorioz, irteera bat eta sarrera bat bertan erregistratuta geratu ziren. Horrela, apelatzaileak berak ezabatu zuen tasa aplikatzeko aukera, tasak nahitasuna eskatzen baitu eta, kasu honetan, ez baita halakorik egiaztatu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/966ec32546ec3b09a0a8778d75e36f0d/20250729>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2304/2025 epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 272/2025 epaia, 2025eko maiatzaren 10ekoa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta berretsi Estatuko Administrazioak legitimazioa duela onetsitako ordainsari-igoerengatik bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzea eskatzeko, ez baikaude toki-erakundeen finantza-tutoretzaren arloko foru-eskumenak baliatzeko kasu baten aurrean: Estatuaren oinarritzko araudia betetzen dela kontrolatzea da afera, gastu publikoa kontrolatzeko neurriei dagokienez. Hala ere, ondorio dialektiko hutsetarako onartzen badugu ere finantza-tutoretzako kasu baten aurrean gaudela, kasu honetan ere eskumena ez litzateke lurralde historikoena izango, finantza-tutoretzaren gaineko foru-eskumena ez baita iristen gastu

publikoa kontrolatzeko tresnetara edo aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-orekarako helburuetara (3. OJ). Administrazio demandatuak deuseztatzen ari den funtsaren sorreraren ondorioz bidegabe jasotako zenbatekoak itzularazi behar die bere enplegatu publikoei; izan ere, aurkaratutako erabakia baliogabetzen denez, indarrik gabe utzi behar da, eta onartu aurreko egoera lehengoratzeko behar diren neurri guztiak martxan jarri. Jakina, neurri horien barruan sartzen da udaleko langileek bidegabe kobratu duten dirua berreskuratzea (4. OJ), eta, egia esan, Estatuko legeria argia da enplegatu publikoen ordainsari-igoeraren mugari dagokionez; muga hori udalak superabita eduki ala ez aplikatzen da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d1939b4b62a876e4a0a8778d75e36f0d/20250729>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2398/2025 epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 294/2025 epaia, 2025eko ekainaren 19koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa; izan ere, istripuaren dinamika frogatutzat jo da, bizikletaren aurreko gorpila lehertu egin baita, zoladura akastunean dauden ildoetako batean sartu delako eta udalak galtzada gaizki mantendu duelako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b8f13a83efcd2995a0a8778d75e36f0d/20250801>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2422/2025 epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 331/2025 epaia, 2025eko ekainaren 24koa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta berretsi udalak ez duela administrazio-jarduerarik egin, ez dielako erantzun itxitako merkataritza-lokal bateko eragozpenei eta jarduerari buruzko kexa eta informazio-eskaera askori. Izan ere, errekurtsogileak (orain apelatzaile denak) ez du baldintzarik gabeko eskubiderik nahi duena lortzeko: udalak legez aurreikusitako esparruan jarduteko eskubidea dauka, eta esparru horrek, kasu honetan, bere idazkiei erantzun positiboa edo negatiboa ematea dakar. Hori, kasu guztietan ez bada ere, aurreko idazki gehien-gehienetan egin izan du, eta agerian geratu da administrazioak jurisprudentziaren eta aurreikusitako araudiaren arabera jarduten duela.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/419bc35d35dbe1eca0a8778d75e36f0d/20250804>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2410/2025 epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 336/2025 epaia, 2025eko ekainaren 25ekoa.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta higiezin baten zati bat errausketa-laberik gabeko beilatoki bihurtzeko lanei emandako obra-lizentzia berretsi du; izan ere, beilatokiko jarduerak —lizentzia eskatu zeneko obrei dagozkie— eta erraustegikoak independenteak dira fisikoki eta funtzionalki, eta beilatokiko jarduera bat dator HAPOan higiezina kokatuta dagoen lurzatirako aurreikusitako erabilera-araubidearekin. Eta errausketa-labearen erabilerek bakarrik eskatzen dute apelatzaileak eskatzen duen aurretiazko administrazio-kontrolaren araubidea. Hori horrela izanik, ulertzekoa da epaiak alderdi horiei buruz luze ez hitz egiteak ez dakarrela omisiozko inkongruentziarik; izan ere, inkongruentea litzateke, errausketa-labearen jarduera ez dela deklaratu ondoren, errausketa-labearen araubide juridikoa betetzen den aztertzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1b8a6a1915d51f4ca0a8778d75e36f0d/20250804>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2530/2025 epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 340/2025 epaia, 2025eko ekainaren 30ekoa.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du jarritako errekurtoa, eta lehiaketako merezimenduen baremoa berretsi du; izan ere, aplikatzekoak diren arauak ez dute eragozten euskara-eskakizuna lanposturako eskatzen dena baino txikiagoa izatea merezimendu gisa. Administrazioari dagokio merezimenduak haztatzea, hautaketa-prozesu osoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren gaineko gehieneko portzentajeak araututa, baina hari dagokio portzentaje zehatzak finkatzea, muga horien barruan, kidegoan edo eskalan nagusi den hizkuntza-eskakizunaren edo plazari esleitutako hizkuntza-eskakizunaren arabera. Beraz, ezerk ez du eragozten administrazioak, esleituta dituen ahalmenen barruan, merezimendu gisa baloratzea hizkuntza-eskakizun jakin bat duen eta derrigortasun-data igarota ez duen lanpostu baterako euskara jakitea, nahiz eta euskararen ezagutza ez iritsi lanpostu horretarako eskatzen den mailara. Balorazio hori, gainera, autoen kasuan egiten da, euskararen ezagutza-maila egiaztatzearekin proportzioan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/21eec9541bab519a0a8778d75e36f0d/20250807>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2457/2025 epaia) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 342/2025 epaia, 2025eko uztailaren 1ekoa.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du jarritako apelazioa, eta lurzoru urbanizaezinean lizentziarik gabeko eraikin bat eraisteko agindu du, irmo onartu baita salatutako obrak legeztatu ezin direla. Gainera, hirigintza-legezketasuna berrezartzeko 4 urteko iraungitze-epe hori ez zen osorik igaro, eta, halaber, lurzoru

urbanizaezinaren kasuan, aipatutako epea ez da aplikatzen horrelako lurzoruetan eraikitzeke orduan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e15b0254b6718b72a0a8778d75e36f0d/20250807>

TOKIKO MUNDUA EUROPAN

Eskualdeetako Lantaldea

- 167. osoko bilkura, 2025eko uztailak 2 eta 3. IRIZPENA: Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa berrikustea.

Eskualdeetako Komiteak positibotzat jo du proposamenaren helburua Globalizaziora Egokitzeko Europako Funt sarean (GEEF) aplikazio-eremua zabaltzea izatea, berehalako kaleratzeek kaltetutako langileak ere aintzat har ditzan; azpimarratu du proposamen hori jada egin zuela GEEFen Erregelamenduari buruzko 2018ko irizpenean.

<https://cor.europa.eu/es/nuestro-trabajo/dictámenes/cdr-2149-2025>

- 167. osoko bilkura, 2025eko uztailak 2 eta 3. IRIZPENA: Europa erraz eta azkarrago bat.

Eskualdeetako Komiteak pozik hartu du Batzordearen komunikazioa, esparru arautzailea arrazionalizatzea, administrazio-kargak murriztea eta eraldaketa digitala bizkortzea baitu helburu. Hori guztia Europar Batasuneko legeria sinplifikatzeko eta prozesuak maila guztietako beharretara egokitzeko ahalegin zabalago batean kokatzen da.

<https://cor.europa.eu/es/nuestro-trabajo/dictámenes/cdr-0975-2025>

- 167. osoko bilkura, 2025eko uztailak 2 eta 3. IRIZPENA: Belaunaldiarteko ekitatea: Gizarte inklusibo eta jasangarriak eraikitzeke toki- eta eskualde-ikuspegia

Eskualdeetako Komiteak dio belaunaldi guztientzako etorkizun justu eta iraunkor bat eraikitzea partekatutako erantzukizuna dela, eta Europako proiektuaren giltzarria. Belaunaldiarteko ekitateak esan nahi du gaur hartzen diren erabakiek —finantza publikoei, ingurumenari, arreta-sistemei eta beste esparru batzuei buruzkoak— gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien garapena ahalbidetuko dutela bermatzea. Aitortzen du politiken onurak eta kargak belaunaldien artean desberdin banatzeak bidegabekeria sor dezakeela; beraz, etorkizuneko belaunaldien ongizatea babestuko duten politikak eskatzen ditu, eta, aldi berean,

gaur egungo gizarte- eta ingurumen-erronkei modu justu eta inklusiboan heltzen diete.

<https://cor.europa.eu/es/nuestro-trabajo/dictámenes/cdr-0369-2025>

- 167. osoko bilkura, 2025eko uztailak 2 eta 3. IRIZPENA: Ospitaleetako eta osasun-laguntzarako zentroetako zibersegurtasuna

Eskualdeetako Komiteak etsipena adierazi du, komunikazioan eskualde- eta toki-mailarik ez dagoelako; kezagarritzat jo du omisio hori, ez baitu aintzat hartzen EBko estatu kideen bi herenetan osasun-arretan ematen duten hornitzaileen jabetzaren eta kudeaketaren errealitatea; estatu kideei eskatu die beren eskualdeak erabat inplika ditzaten zibersegurtasun-estrategia ororen diseinuan eta aplikazioan.

<https://cor.europa.eu/es/nuestro-trabajo/dictámenes/cdr-0916-2025>

- 167. osoko bilkura, 2025eko uztailak 2 eta 3. IRIZPENA: Nekazaritzaren eta elikaduraren ikuspegia.

Eskualdeek plan estrategikoen gobernantzan zeregin nabarmena izatea nahi du Eskualdeetako Komiteak, nekazarien arteko lehiaren distortsioak saihesteko bermekin.

<https://cor.europa.eu/es/nuestro-trabajo/dictámenes/cdr-0948-2025>

ARGITALPENAK

- IVAP. Administrazioa Euskaraz. 129. zk. 2025eko uztaila.



Informazio gehiago hemen: <https://www.ivap.euskadi.eus/t59auUdaWar/R1>

- FEMP. TOKIKO GUTUNA, 391. ZK., UZTAILA-ABUZTUA



Informazio gehiago hemen: <http://femp.femp.es/files/842-412-fichero/CARTA%20LOCAL%20JU-LIO%202025%20N391.pdf>

- Gestión y Análisis de Políticas Públicas. Nueva época. 38. zenbakia (2025eko uztaila).

GAPP	Número 38 Nueva época Julio, 2025 Gestión y Análisis de Políticas Públicas
Artículos / Articles	
La investigación comparada en política cultural: una revisión de alcance Comparative research in cultural policy: A scoping review Toscano, Leticia Cecilia / Rubio-Navarro, Juan Antonio	6-26
El derecho de acceso a la información pública en España desde una perspectiva de género The right of access to public information in Spain from a gender perspective Riquelme, José Luis / Riquelme Escala, José Manuel	27-43
Políticas anticorrupción holísticas para luchar contra la corrupción: una propuesta analítica integradora Holistic institutional policies to combat corruption: an analytical integrative proposal Páramo-Bernier, Dorena / Arce-López, María Asunción	44-62
Análisis de la gestión de datos por comunidades autónomas en España Analysis of Data Governance by regions in Spain García-Romero, Cecilia / Adroba, Monty Luis, José María	63-84
Entrevistas / Interviews	
El Estado como un ecosistema productivo de bienes y servicios: transformando capacidades en el sector público español. Entrevista a Clara Miquel Martínez Hernández-Alonso, Jesús / Cruz-Quintana, Daniel	85-95
Entre la teoría y la práctica. Transformando la administración y la gestión pública en España. Entrevista a Daniel Páramo-Bernier Hernández-Alonso, Jesús / Cruz-Quintana, Daniel	96-104
Reseñas / Book reviews	
El Jai Kwon y Dong Young Kim: Policy responses to the COVID-19 pandemic: An international comparative approach Torres-Luiz, Marcelo	105-108
	

Informazio gehiago hemen: <https://doi.org/10.24965/gapp.38.2025>

- Documentación Administrativa. Nueva Época. 14. zenbakia (2025eko ekaina).

da	Número 14 Nueva época Junio, 2025 Documentación Administrativa
Presentación / Presentation	
Introducción Da Gaita, María Esther / Riquelme, Cecilia	6-7
Artículos / Articles	
Organización crítica a los modelos representativos de los procesos de participación en el empleo público Critical analysis to the representative models of participation processes in public employment Carrón, Rafael / Páramo-Bernier, Dorena	8-23
Bohío digital y emprendimiento en el sector público Digital divide and agency in the Public Sector Estrella-López, Oscar	24-43
Exposición de información administrativa y relaciones de poder en el trabajo en el empleo público (OPR) Exposure of Public Power and its Descriptions of Civil Servants García-Castro, Eduardo	44-66
La innovación de servicios en las universidades públicas de Andalucía Service innovation in the public universities of Andalusia García-Vázquez, Jorge	67-89
Colaboración de gobernanza y servicios públicos innovadores. El caso del Centro de Innovación Social y el Centro de Innovación de Málaga (CIS) Governance capabilities and innovative public services. The case of the Social Innovation Centre. La Red de los Málaga Phoenix Center (LRC)	90-106
García-Vázquez, Jorge / García-López, Pedro Antonio	90-106
Responsabilidad en acceso al empleo público: teoría práctica y ¿cómo? Responsibility in access to public employment: Theory practice and ¿how? Riquelme, Yusef, José	107-127
La investigación en transparencia e acceso a la información como mecanismo de lucha contra la corrupción Theory in transparency and access to information as a mechanism to fight corruption Quintero-Morales, Paula	128-146
Crónica internacional / International chronicle	
El Estado administrativo en Estados Unidos: bases de la reforma organizativa del gobierno público The Administrative State in the United States: bases for organizational reform in the public sector Zamora-Chen, Víctor	147-166
Crónicas / Chronicles	
Crónica de la corrupción institucional sobre empleo público más significativa del primer periodo del año 2025 Summary of the corruption institutional on public employment with higher significance in the first period of the year 2025 Carrón, Rafael / Riquelme, Dorena	167-181
	

Informazio gehiago hemen: <https://doi.org/10.24965/da.14.2025>

DEIALDI INTERESGARRIAK

- «Larrialdi-egoeretan komunikatzea: erronkak, estrategiak eta baliabideak»



- **Eguna:** 2025eko urriaren 3a
- **Non:** Universitat Pompeu Fabra
Carrer de la Mercè, 12
08002 Bartzelona

- **Informazio gehiago hemen:** <https://gobiernolocal.org/comunicar-en-situaciones-de-emergencia-retos-estrategias-y-nuevos-mediosbarcelona-3-de-octubre-de-2025/>

- Gobernu Irekirako Aliantzaren IX. Goi Bilera Globala 2025



- **Egunak:**
2025eko urriaren 6tik 10era
- **Tokia:**
Europa biltzar-jauregia
(Gasteiz etorbidea 85)
01009 Vitoria-Gasteiz

- **Informazio gehiago hemen:** <https://spain.ogpsummit.org/p/#/overview>